**EZ OHIKO OSOKO BILKURA / PLENO EXTRAORDINARIO**

**2019KO UZTAILAREN 29A / 29 DE JULIO DE 2019**

**BERTARATUAK / ASISTENTES**

| IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO GENERAL | ALKATE-UDALBURUA / ALCALDE-PRESIDENTE |
|---|---|
| D. Juan Agustín Villafranca Bellido jauna | D. Jon Iraola Iriondo D. Miguel de los Toyos Nazabal jauna PSE-EE (PSOE). |
| | **ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE** |
| | D. Alberto Albistegui Zamacola jauna PSE-EE (PSOE).<br>D. Jon Iraola Iriondo jauna PSE-EE (PSOE).<br>D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna PSE-EE (PSOE).<br>D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna PSE-EE (PSOE). |
| | **ZINEGOTZIAK / CONCEJALES** |
| | Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea PSE-EE (PSOE).<br>Dña Esther Velasco Juanes andrea PSE-EE (PSOE).<br>Dña. Ana Telleria Echeverria andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Josu Mendicute Rodríguez jauna (EIBARKO EAJ.PNV).<br>D. Alberto de la Hoz Gorriti jauna (EIBARKO EAJ.PNV).<br>Dña. Mª Mercedes Garate Larrañaga andrea (EIBARKO EAJ.PNV).<br>D. Jon Pérez Illana jauna (EIBARKO EAJ.PNV).<br>Dña. Mª Elena Ibañez Anucibay andrea (EIBARKO EAJ.PNV).<br>Dña. Amaia Albizu Llubia andrea (EIBARKO EAJ.PNV).<br>D. Gorka Errasti Bernedo jauna (EH BILDU).<br>Dña. Igone Lamarain Cobo andrea (EH BILDU).<br>D. José Ángel Gimare Escolar jauna (EH BILDU).<br>Dña. Miren Baranguan Yarza andrea (EH BILDU).<br>Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea (EH BILDU).<br>Dña. Mª Isabel Fernández Pejenaute andrea<br>(ELKARREKIN EIBAR-PODEMOS / ESKER ANITZA – IU/ EQUO BERDEAK). |

Eibarko hirian, 2019ko uztailaren 29an, arratsaldeko zazpietan, Udal Osoko bilkura egin zen, ohiko bileran, udaletxeko Batzar Aretoan, goian aipaturiko jaun-andreek osatua; Patricia Arrizabalaga Larrañaga andreak justifikatu du bere ezin etorria.

En la Ciudad de Eibar, a 29 de julio de 2019 y siendo las diecinueve horas, se reunió en sesión ordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/as señores/as anteriormente menciona-dos/as, habiendo justificado su ausencia Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga.

**Alkatea-Udalburu jaunak** bilerari hasiera eman dio eta aztertu da honako

El **Sr. Alcalde-Presidente** declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente

## GAI-ZERRENDA

## ORDEN DEL DÍA

**1. 2019ko ekainaren 15eko bilkurari zegokion akta-zirriborroa onartzea.**

**Mendicute Rodriguez jaunak** adierazi du bere interbentzioaren lehen paragrafoan, aipatzen duenean Udalbatzaren kideetako bakoitzak gutxi gorabehera 650 bat herritar ordezkatzen dituela, hauxe gehitu beharko litzatekeela:“*denak batera, 27.000tik gorako eibartarren ordezkari garela*."

**1. Aprobación del borrador del acta correspondiente a la sesión de 15 de junio de 2019.**

El **Sr. Medicute Rodríguez** señala que, en el primer párrafo de su intervención, cuando se refería a que cada uno de los miembros de la Corporación representa a aproximadamente a 650 ciudadanos, debería añadirse que *“en conjunto, somos los representantes de las más de 27.000 eibarresas y eibarreses.”*

Halaber, akats bat dago euskarazko bertsioan esaten denean:

*“Guk onartu egiten dugu joan den maiatzaren 26ko hauteskunde-emaitza: agintaldi demokratiko bat da beste lau urtez luzatzen duena Toyos jaunaren ibilbidea Alkatetzan.”*

Hauxe esan behar du:

*“Guk onartu egiten dugu joan den maiatzaren 26ko hauteskunde-emaitza: Agindu demokratiko bat da beste lau urtez luzatzen duena Toyos jaunaren ibilbidea Alkatetzan.”*

Azkenik, alkate-udalburu jaunaren interbentzioaren lehen paragrafoan ez dago jasota adierazpide hau *“(…) baieztapen batzuk egin dira zeinekin ez dagoen batera ados (…)”*. Eskatu du hori sartzea, izan ere, bere taldeari harrigarri egin zitzaizkion hitz horiek.

Asimismo, existe un error en la versión en euskera cuando se dice:

*“Guk onartu egiten dugu joan den maiatzaren 26ko hauteskunde-emaitza: agintaldi demokratiko bat da beste lau urtez luzatzen duena Toyos jaunaren ibilbidea Alkatetzan.”*

Y debe decir.

*“Guk onartu egiten dugu joan den maiatzaren 26ko hauteskunde-emaitza: agindu demokratiko bat da beste lau urtez luzatzen duena Toyos jaunaren ibilbidea Alkatetzan.”*

Por último, en el primer párrafo de la intervención del Sr. Alcalde-Presidente no aparece recogida la expresión *“(…) se han realizado afirmaciones con las que no está en absoluto de acuerdo (…)”*. Solicita que se incluya ya que a su grupo le sorprendieron estas palabras.

2019ko ekainaren 15eko ohiko osoko bilkurari dagokion akta bozkatu ondoren, Mendicute Rodríguez jaunak adierazitako zuzenketak sartuta, onartu egin da aldeko hamalau botoren gehiengoarekin (PSE-EE (PSOE) eta Eibarko EAJ-PNV) eta sei abstentziorekin (Euskal Herria Bildu eta Elkarrekin Eibar-Podemos).

Sometida a votación el acta correspondiente a la sesión plenaria ordinaria de 15 de junio de 2019, con las correcciones indicadas por el Sr. Mendicute Rodríguez, queda aprobada por mayoría de catorce votos a favor (PSE-EE (PSOE) y Eibarko EAJ-PNV) y seis abstenciones (EH Bildu y Elkarrekin Eibar-Podemos).

**2. Alkatetzaren ebazpenen kontu-ematea.**

**Garate Larrañaga andreak** galdetu du 2019ko uztailaren 3ko alkatetzaren ebazpenari buruz, Udal Lan Batzorde eta Batzorde Aholkularien idazkaritzaren eskuordetzari buruzkoa; izan ere, eskuordetza hori ematen ez den bakarra Erakunde, Lurralde eta Lege-gaietarako Lan Batzordea da.

**Idazkari jaunak** jakinarazi du, organo kolegiatu guztien Idazkaritzaren titular gisa, bidezko diren eskuordetzak proposatzen dituela.

Beraz, azaroaren 28ko, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudiari buruzko 2568/1986 Errege Dekretuaren 234. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, alkate-udalburu jaunak azken osoko bilkura arruntetik hona emandako Alkatetzaren ebazpenen edukiaren berri eman du.

Udalkideak jakitun geratzen dira.

**2. Dación de cuentas de Resoluciones de Alcaldía.**

La **Sra. Garate Larrañaga** pregunta por la Resolución de Alcaldía, de 3 de julio de 2019, relativa a la delegación de la Secretaría de las diferentes Comisiones Municipales de Trabajo y Asesoras, ya que la única en la que no se produce dicha delegación es en la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales.

El **Sr. Secretario** informa que, como titular de la Secretaría de todos los órganos colegiados, propone las delegaciones correspondientes.

Por tanto, de acuerdo con lo previsto en el artículo 234 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales el Sr. Alcalde-Presidente da cuenta del contenido de las Resoluciones de Alcaldía dictadas desde la última sesión plenaria ordinaria.

Los miembros de la Corporación se dan por enterados.

**3. Udal taldeek kide anitzeko organoetan dituzten ordezkarien kontu-ematea.**

- Erakunde, Lurralde eta Lege Gaietarako Lan Batzordea.

Batzordeburua: Miguel de los Toyos Nazabal
Bokalak:

- Idoya Sarasqueta Aramburu (ordezkoa/suplente: Patricia Arrizabalaga Larrañaga)
- Esther Velasco Juanes (ordezkoa/suplente: Ana Telleria Echeverria)
- Josu Mendicute Rodríguez (ordezkoa/suplente: Alberto de la Hoz Gorriti)
- Elena Ibañez Anuncibay (ordezkoa/suplente: Amaia Albizu Llubia
- Jon Pérez Illana (ordezkoa/suplente: Maria Mercedes Garate Larrañaga
- Igone Lamarain Cobo (ordezkoa/suplente: Gorka Errasti Bernedo)
- Miren Baranguan Yarza (ordezkoa/suplente: José Angel Gimare Escolar)
- Maria Isabel Fernández Pejenaute

Idazkaria: Juan Agustín Villafranca Bellido

- Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordea

Batzordeburua: Miguel de los Toyos Nazabal

Bokalak:

- Ana Telleria Echeverria (ordezkoa/suplente: Alberto Albistegui Zamacola)
- Esther Velasco Juanes (ordezkoa/suplente: Pedro Escribano

**3. Dación de cuentas de los representantes de los grupos municipales en los diferentes órganos colegiados.**

- Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales.

Presidente: Miguel de los Toyos Nazabal

Vocales:

- Idoya Sarasqueta Aramburu (ordezkoa/suplente: Patricia Arrizabalaga Larrañaga)
- Esther Velasco Juanes (ordezkoa/suplente: Ana Telleria Echeverria)
- Josu Mendicute Rodríguez (ordezkoa/suplente: Alberto de la Hoz Gorriti)
- Elena Ibañez Anuncibay (ordezkoa/suplente: Amaia Albizu Llubia
- Jon Pérez Illana (ordezkoa/suplente: Maria Mercedes Garate Larrañaga
- Igone Lamarain Cobo (ordezkoa/suplente: Gorka Errasti Bernedo)
- Miren Baranguan Yarza (ordezkoa/suplente: José Angel Gimare Escolar)
- Maria Isabel Fernández Pejenaute

Secretario: Juan Agustín Villafranca Bellido

- Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio

Presidente: Miguel de los Toyos Nazabal

Vocales:

- Ana Telleria Echeverria (ordezkoa/suplente: Alberto Albistegui Zamacola)
- Esther Velasco Juanes (ordezkoa/suplente: Pedro Escribano

Ruiz de la Torre)
- Josu Mendicute Rodríguez (ordezkoa/suplente: Amaia Albizu Llubia)
- Maria Mercedes Garate Larrañaga (ordezkoa/suplente: Jon Pérez Illana)
- Elena Ibañez Anuncibay (ordezkoa/suplente: Alberto de la Hoz Gorriti)
- Gorka Errasti Bernedo (ordezkoa/suplente: José Angel Gimare Escolar)
- Igone Lamarain Cobo (ordezkoa/suplente: Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga)
- María Isabel Fernández Pejenaute

Idazkaria: David García Castro

- Hirigintza, Obra eta Ingurumen Lan Batzordea

Batzordeburua: Miguel de los Toyos Nazabal

Bokalak:

- Jon Iraola Iriondo (ordezkoa/suplente: Ana Telleria Echeverria)
- Esther Velasco Juanes (ordezkoa/suplente: Pedro Escribano Ruiz de la Torre)
- Alberto de la Hoz Gorriti (ordezkoa/suplente: Amaia Albizu Llubia)
- Josu Mendicute Rodríguez (ordezkoa/suplente: Elena Ibañez Anuncibay)
- Jon Pérez Illana (ordezkoa/suplente: Maria Mercedes Garate Larrañaga)
- Igone Lamarain Cobo (ordezkoa/suplente: Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga)
- Gorka Errasti Bernedo (ordezkoa/suplente: José Angel Gimare Escolar)

Ruiz de la Torre)
- Josu Mendicute Rodríguez (ordezkoa/suplente: Amaia Albizu Llubia)
- Maria Mercedes Garate Larrañaga (ordezkoa/suplente: Jon Pérez Illana)
- Elena Ibañez Anuncibay (ordezkoa/suplente: Alberto de la Hoz Gorriti)
- Gorka Errasti Bernedo (ordezkoa/suplente: José Angel Gimare Escolar)
- Igone Lamarain Cobo (ordezkoa/suplente: Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga)
- María Isabel Fernández Pejenaute

Secretario: David García Castro

- Comisión de Trabajo de Urbanismo, Obras y Medio Ambiente

Presidente: Miguel de los Toyos Nazabal

Vocales:

- Jon Iraola Iriondo (ordezkoa/suplente: Ana Telleria Echeverria)
- Esther Velasco Juanes (ordezkoa/suplente: Pedro Escribano Ruiz de la Torre)
- Alberto de la Hoz Gorriti (ordezkoa/suplente: Amaia Albizu Llubia)
- Josu Mendicute Rodríguez (ordezkoa/suplente: Elena Ibañez Anuncibay)
- Jon Pérez Illana (ordezkoa/suplente: Maria Mercedes Garate Larrañaga)
- Igone Lamarain Cobo (ordezkoa/suplente: Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga)
- Gorka Errasti Bernedo (ordezkoa/suplente: José Angel Gimare Escolar)
- María Isabel Fernández Pejenaute

- María Isabel Fernández Pejenaute

Idazkaria: Ubaldo Luis Ortiz Rodrigo

Secretario: Ubaldo Luis Ortiz Rodrigo

- Pertsonaleko Lan Batzordea

Batzordeburua: Miguel de los Toyos Nazabal

Bokalak:

- Ana Telleria Echeverria (ordezkoa/suplente: Esther Velasco Juanes)
- Pedro Escribano Ruiz de la Torre (ordezkoa/suplente: Patricia Arrizabalaga Larrañaga)
- Maria Mercedes Garate Larrañaga (ordezkoa/suplente: Alberto de la Hoz Gorriti)
- Elena Ibañez Anuncibay (ordezkoa/suplente: Josu Mendicute Rodríguez)
- Amaia Albizu Llubia (ordezkoa/suplente:Jon Pérez Illana)
- Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga (ordezkoa/suplente: Miren Baranguan Yarza)
- Gorka Errasti Bernedo (ordezkoa/suplente: Igone Lamarain Cobo)
- María Isabel Fernández Pejenaute

Idazkaria: Ainhize Ortuondo Aresti

- Comisión de Trabajo de Personal

Presidente: Miguel de los Toyos Nazabal

Vocales:

- Ana Telleria Echeverria (ordezkoa/suplente: Esther Velasco Juanes)
- Pedro Escribano Ruiz de la Torre (ordezkoa/suplente: Patricia Arrizabalaga Larrañaga)
- Maria Mercedes Garate Larrañaga (ordezkoa/suplente: Alberto de la Hoz Gorriti)
- Elena Ibañez Anuncibay (ordezkoa/suplente: Josu Mendicute Rodríguez)
- Amaia Albizu Llubia (ordezkoa/suplente:Jon Pérez Illana)
- Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga (ordezkoa/suplente: Miren Baranguan Yarza)
- Gorka Errasti Bernedo (ordezkoa/suplente: Igone Lamarain Cobo)
- María Isabel Fernández Pejenaute

Secretaria: Ainhize Ortuondo Aresti

- Zerbitzu eta Azoka Batzorde Aholkularia.

Batzordeburua: Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna.

Bokalak:

- Jon Iraola Iriondo
- Josu Mendicute Rodríguez
- José Angel Gimare Escolar
- María Isabel Fernández Pejenaute

Idazkaria: Iker Rodríguez Guisasola

- Comisión Asesora de Servicios y Mercados.

Presidente: D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre.

Vocales:

- Jon Iraola Iriondo
- Josu Mendicute Rodríguez
- José Angel Gimare Escolar
- María Isabel Fernández Pejenaute

Secretario: Iker Rodríguez Guisasola

- Euskara Batzorde Aholkularia.

Batzordeburua: Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna.

Bokalak:

- Patricia Arrizabalaga Larrañaga
- Amaia Albizu Llubia
- Igone Lamarain Cobo
- María Isabel Fernández Pejenaute

Idazkaria: Junkal Txurruka Arrizabalaga.

- Comisión Asesora de Euskera.

Presidente: D. Francisco Javier Lejardi Galarraga.

Vocales:

- Patricia Arrizabalaga Larrañaga
- Amaia Albizu Llubia
- Igone Lamarain Cobo
- María Isabel Fernández Pejenaute

Secretaria: Junkal Txurruka Arrizabalaga.

- Kultura Batzorde Aholkularia.

Batzordeburua: Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna.

Bokalak:

- Patricia Arrizabalaga Larrañaga
- Maria Mercedes Garate Larrañaga
- José Angel Gimare Escolar
- María Isabel Fernández Pejenaute

Idazkaria: José Luis González Blanco

- Comisión Asesora de Cultura.

Presidente: D. Francisco Javier Lejardi Galarraga.

Vocales:

- Patricia Arrizabalaga Larrañaga
- Maria Mercedes Garate Larrañaga
- José Angel Gimare Escolar
- María Isabel Fernández Pejenaute

Secretario: José Luis González Blanco

- Pertsonal eta Barne Araudiko Batzorde Aholkularia.

Batzordeburua: Ana Telleria Echeverria andrea.

Bokalak:

- Pedro Escribano Ruiz de la Torre
- Maria Mercedes Garate Larrañaga
- Ana Francisca Astigarraga

- Comisión Asesora de Personal y Régimen Interior.

Presidenta: Dña. Ana Telleria Echeverria.

Vocales:

- Pedro Escribano Ruiz de la Torre
- Maria Mercedes Garate Larrañaga
- Ana Francisca Astigarraga

Arrizabalaga
- María Isabel Fernández Pejenaute.

Idazkaria: Ainhize Ortuondo Aresti.

- Gizartekintza Batzorde Aholkularia.

Batzordeburua: Idoya Sarasqueta Aramburu andrea.

Bokalak:

- Francisco Javier Lejardi Galarraga
- Amaia Albizu Llubia
- Miren Baranguan Yarza
- María Isabel Fernández Pejenaute

Idazkaria: Miren Jaione Azkue Landa

- Obra Batzorde Aholkularia.

Batzordeburua: Jon Iraola Iriondo jauna.

Bokalak:

- Pedro Escribano Ruiz de la Torre
- Alberto de la Hoz Gorriti
- Igone Lamarain Cobo
- María Isabel Fernández Pejenaute

Idazkaria: Ubaldo Luis Ortiz Rodrigo

- Hirigintza Batzorde Aholkularia.

Batzordeburua: Jon Iraola Iriondo jauna.

Bokalak:

- Ana Telleria Echeverria
- Alberto de la Hoz Gorriti
- Igone Lamarain Cobo
- María Isabel Fernández Pejenaute

Idazkaria: Ubaldo Luis Ortiz Rodrigo

Arrizabalaga
- María Isabel Fernández Pejenaute.

Secretaria: Ainhize Ortuondo Aresti.

- Comisión Asesora de Servicios Sociales.

Presidenta: Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu.

Vocales:

- Francisco Javier Lejardi Galarraga
- Amaia Albizu Llubia
- Miren Baranguan Yarza
- María Isabel Fernández Pejenaute

Secretaria: Miren Jaione Azkue Landa

- Comisión Asesora de Obras.

Presidente: D. Jon Iraola Iriondo.

Vocales:

- Pedro Escribano Ruiz de la Torre
- Alberto de la Hoz Gorriti
- Igone Lamarain Cobo
- María Isabel Fernández Pejenaute

Secretario: Ubaldo Luis Ortiz Rodrigo

- Comisión Asesora de Urbanismo.

Presidente: D. Jon Iraola Iriondo.

Vocales:

- Ana Telleria Echeverria
- Alberto de la Hoz Gorriti
- Igone Lamarain Cobo
- María Isabel Fernández Pejenaute

Secretario: Ubaldo Luis Ortiz Rodrigo

- Ingurumeneko Batzorde Aholkularia.

Batzordeburua: Jon Iraola Iriondo jauna.

Bokalak:

- Pedro Escribano Ruiz de la Torre
- Jon Pérez Illana
- Miren Baranguan Yarza
- María Isabel Fernández Pejenaute

Idazkaria: Vanesa Larrabide García

- Comisión Asesora de Medio Ambiente.

Presidente: D. Jon Iraola Iriondo.

Vocales:

- Pedro Escribano Ruiz de la Torre
- Jon Pérez Illana
- Miren Baranguan Yarza
- María Isabel Fernández Pejenaute

Secretaria: Vanesa Larrabide García

- Ego Ibarra Batzorde Aholkularia.

Batzordeburua: Idoia Sarasqueta Aramburu andrea.

Bokalak:

- Francisco Javier Lejardi Galarraga
- Josu Mendicute Rodríguez
- Gorka Errasti Bernedo
- María Isabel Fernández Pejenaute

Idazkaria:. Begoña Azpiri Eguren

- Comisión Asesora Ego Ibarra.

Presidenta: Dña. Idoia Sarasqueta Aramburu.

Vocales:

- Francisco Javier Lejardi Galarraga
- Josu Mendicute Rodríguez
- Gorka Errasti Bernedo
- María Isabel Fernández Pejenaute

Secretaria: Begoña Azpiri Eguren

- Trafiko eta Garraio Batzorde Aholkularia:

Batzordeburua: Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna.

Bokalak:

- Francisco Javier Lejardi Galarraga
- Jon Pérez Illana
- José Angel Gimare escolar
- María Isabel Fernández Pejenaute

- Comisión Asesora de Tráfico y Transporte.

Presidente: D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre.

Vocales:

- Francisco Javier Lejardi Galarraga
- Jon Pérez Illana
- José Angel Gimare escolar
- María Isabel Fernández Pejenaute

Idazkaria: Pedro Javier Ciaran Díez.

Secretario: Pedro Javier Ciaran Díez.

- Ekonomia Garapenerako, Enplegurako eta Berrikuntzarako Batzorde Aholkularia.

Batzordeburua: Alberto Albistegui Zamacola jauna.

Bokalak:
- Esther Velasco Juanes
- Alberto de la Hoz Gorriti
- Gorka Errasti Bernedo
- María Isabel Fernández Pejenaute

Idazkaria: Ainhoa Romero Gallardo.

- Comisión Asesora de Desarrollo Económico, Empleo e Innovación.

Presidente: D. Alberto Albistegui Zamacola.

Vocales:
- Esther Velasco Juanes
- Alberto de la Hoz Gorriti
- Gorka Errasti Bernedo
- María Isabel Fernández Pejenaute

Secretaria: Ainhoa Romero Gallardo.

- Ogasun Batzorde Aholkularia.

Batzordeburua: Ana Telleria Echeverria andrea.

Bokalak:
- Alberto Albistegui Zamacola
- Elena Ibañez Anuncibay
- Gorka Errasti Bernedo
- María Isabel Fernández Pejenaute

Idazkaria: David García Castro

- Comisión Asesora de Hacienda.

Presidenta: Dña. Ana Telleria Echeverria.

Vocales:
- Alberto Albistegui Zamacola
- Elena Ibañez Anuncibay
- Gorka Errasti Bernedo
- María Isabel Fernández Pejenaute

Secretario: David García Castro

- ENBA Batzorde Aholkularia:

Batzordeburua: Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna.

Bokalak:
- Patricia Arrizabalaga Larrañaga
- Josu Mendicute Rodríguez
- Igone Lamarain Cobo
- María Isabel Fernández Pejenaute

Idazkaria: Junkal Txurruka Arrizabalaga.

- Comisión Asesora ENBA.

Presidente: D. Francisco Javier Lejardi Galarraga.

Vocales:
- Patricia Arrizabalaga Larrañaga
- Josu Mendicute Rodríguez
- Igone Lamarain Cobo
- María Isabel Fernández Pejenaute

Secretaria: Junkal Txurruka Arrizabalaga.

- Gazteria Batzorde Aholkularia.

Batzordeburua: Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea.

Bokalak:
- Francisco Javier Lejardi Galarraga
- Jon Pérez Illana
- Miren Baranguan Yarza
- María Isabel Fernández Pejenaute

Idazkaria: Asier López de Viñaspre Blanco.

- Comisión Asesora de Juventud.

Presidenta: Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga

Vocales:
- Francisco Javier Lejardi Galarraga
- Jon Pérez Illana
- Miren Baranguan Yarza
- María Isabel Fernández Pejenaute

Secretario: Asier López de Viñaspre Blanco.

- Nagusien Batzorde Aholkularia

Batzordeburua: Idoia Sarasqueta Aramburu andrea.

Bokalak:
- Alberto Albistegui Zamacola
- Amaia Albizu Llubia
- Gorka Errasti Bernedo
- María Isabel Fernández Pejenaute

Idazkaria: Miren Jaione Azkue Landa

- Comisión Asesora de Mayores

Presidenta: Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu

Vocales:
- Alberto Albistegui Zamacola
- Amaia Albizu Llubia
- Gorka Errasti Bernedo
- María Isabel Fernández Pejenaute

Secretaria: Miren Jaione Azkue Landa

- Berdintasunerako Batzorde Aholkularia.

Batzordeburua: Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea.

Bokalak:
- Idoya Sarasqueta Aramburu
- Elena Ibañez Anuncibay
- Miren Baranguan Yarza
- María Isabel Fernández Pejenaute

- Comisión Asesora de Igualdad.

Presidenta: Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga.

Vocales:
- Idoya Sarasqueta Aramburu
- Elena Ibañez Anuncibay
- Miren Baranguan Yarza
- María Isabel Fernández Pejenaute

Idazkaria: Maria Jose Lasa Dorronsoro.

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

**4. Erakunde arteko Lankidetza-hitzarmena onartzeko proposamena, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Eibarko Udalaren artekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari zuzendutako idazkiak udal erregistroan aurkezteko lankidetzari dagokiona.**

**IRIZPENA**

"Ikusirik Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren eta Eibarko Udalaren Administrazioarteko Lankidetza-Hitzarmenaren zirriborroa, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoari zuzendutako idatziak udal erregistroan aurkeztekoa, gaur egun dauden Administrazio publiko guztiekin herritarren hartu-emanak errazteko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko edozein entitate edo organotara zuzendutako agiriak herritarrek Eibarko Udalaren Erregistroetan eraginkortasun osoz aurkez ditzaten ahalbidetzeko.

Secretaria: Maria Jose Lasa Dorronsoro.

El Pleno se da por enterado.

**4. Propuesta de aprobación de Convenio Interadministrativo de Colaboración entre la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Ayuntamiento de Eibar para presentación de escritos dirigidos a la Comunidad Autónoma del País Vasco en registros municipales.**

**DICTAMEN**

"Visto el borrador del Convenio Interadministrativo de Cooperación entre la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Ayuntamiento de Eibar para la presentación de escritos dirigidos a la Comunidad autónoma del País Vasco en el registro municipal con el fin de facilitar las relaciones de los ciudadanos con la pluralidad de Administraciones Públicas actualmente existentes y posibilitando que los ciudadanos puedan presentar, con plenos efectos, los documentos que dirigen a cualquier órgano o entidad de la Administración de la CAPV en los Registros del Ayuntamiento de Eibar.

Ikusirik Idazkaritzaren 2019ko uztailaren 4ko txostena.

Visto el informe de Secretaría, de 4 de julio de 2019.

Ikusirik Kontu-hartzailetzaren 2019ko uztailaren 4ko txostena.

Visto el informe de Intervención, de 4 de julio de 2019.

Kontuan harturik Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 6., 55. eta 57. artikuluetan ezarritakoa eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016ko Legearen 100. artikuluan, bai eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47tik 53ra arteko artikuluetan jasotakoa.

Considerando lo establecido en los artículos 6, 55, y 57 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, y en el artículo 100 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, así como los artículos 47 a 53 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Hitzarmen hau sinatuta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa hurbildu nahi da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari eskaerak, idazkiak eta jakinarazpenak bidaltzeko modua erraztuz, lurralde-kokalekua zein delarik ere.

Con la suscripción del presente convenio se trata de acercar la administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, facilitando el envío de solicitudes, escritos y comunicaciones a la administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con independencia de su localización territorial.

Azken finean, erabilgarritasun publikoko jarduerak egiten laguntzea da, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren legeriak ezarritakoa beteta.

En definitiva, se contribuye a la realización de actividades de utilidad pública, cumpliéndose con lo dispuesto por la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

Beraz, ikusirik espedienteak legez ezarritako izapidea bete duela; Toki

Por tanto, visto que el expediente ha cumplido la tramitación legalmente

Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1995 Legearen 21.1.s) artikuluak ezarritakoaren arabera,

establecida, y de conformidad con lo establecido en el artículo 21.1.s) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local,

Kontuan hartuta 2019ko uztailaren 22ko Gai Instituzional, Juridiko eta Lurraldekoetarako Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales de 22 de julio de 2019

Udalbatzak, aho batez, ondokoa erabaki du:

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

AURRENA.- Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Eibarko Udalaren arteko Administrazioarteko Lankidetza Hitzarmena onartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari zuzendutako idazkiak udal erregistroan aurkezteko, Ebazpen honi erantsia.

PRIMERO.- Aprobar el Convenio Interadministrativo de Cooperación entre la Administración del País Vasco y el Ayuntamiento de Eibar para la presentación de escritos dirigidos a la Comunidad autónoma del País Vasco en el registro municipal y que se adjunta como anexo a la presente Resolución.

BIGARRENA.- Erabaki hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari helaraztea.

SEGUNDO.- Dar traslado del presente acuerdo a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

HIRUGARRENA.- Hitzarmena, behin sinatuta dagoela, Udal honetako Lankidetza-organoen eta Hitzarmenen Erregistro elektronikoan inskribatzea eta Lankidetza-Hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea.

TERCERO.- Inscribir el convenio, una vez se haya suscrito, en el Registro electrónico de órganos de cooperación y de convenios de este Ayuntamiento, y publicar el Convenio de cooperación en el Boletín Oficial del Gipuzkoa.

LAUGARRENA: Alkateari ahalmena ematea, hitzarmena sinatzeko, udaleko presidente eta ordezkari den aldetik, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1b) artikuluan ezarritakoaren arabera."

CUARTO.- Facultar a la Alcaldía, como Presidente de esta Corporación y en representación de este Ayuntamiento, de conformidad con lo establecido en el artículo 21.1 b) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las bases del Régimen Local, para suscribir el citado convenio."

**5. Kirol Patronatuaren Aurrekontuaren Kreditu Gehigarrien lehenengo espedientea.**

**5. Primer expediente de Créditos Adicionales del Presupuesto del Patronato Municipal de Deportes.**

**Lamarain Cobo andreak** gogorarazi du, Espainiako Gobernuak ahalbidetzen duen bakoitzean, udal langileei igo egiten zaiela lan-saria, eta haien eskubidea dela. Testuinguru horretan, EH Bildu udal taldeak beti eman du aldeko botoa, oraingoan ere egingo duen bezala. Dena den, nabarmendu nahi du soldata-igoera hori onartzeko prozedura gehiegi luzatzen ari dela Patronatu eta Fundazioetan, eta tentsioak sortzen direla udal langileen artean. Hortaz, eskatu du prozedura horiek ahal den neurrian azkartzea eta agintaldi honetan zehar Kirol Patronatua Udalaren egituran sartzeko erronkari aurre egitea, horrek ahalbidetuko baitu kirol politika

La **Sra. Lamarain Cobo** recuerda que, cada vez que el Gobierno de España lo permite, el personal municipal ve incrementadas sus retribuciones ya que se trata de su derecho. En este contexto, el grupo municipal EH Bildu siempre ha votado a favor, tal y como lo hará en esta ocasión. No obstante, desea destacar que el procedimiento para aprobar esta subida salarial se prolonga en exceso en el caso de los Patronatos y Fundaciones, lo que genera tensiones entre los empleados municipales. Por tanto, solicita que estos procedimientos se agilicen en la medida de lo posible y que, a lo largo del presente mandato, se haga frente al reto de integración del Patronato de Deportes

zehaztea eta arlo horretako gestioaren jarraipen estuagoa egitea.

en la estructura del Ayuntamiento, lo que permitirá definir la política deportiva y realizar un seguimiento más estrecho de la gestión en esta área.

**Alkate-udalburu jaunak** aitortu du erakunde autonomoetan erreflexuak motelagoak izaten direla halako gaiak izapidetzeko orduan, eta iragarri du agintaldi honetan proposatuko duela Kirol Patronatua Udalean sartzea.

El **Sr. Alcalde-Presidente** reconoce que en los organismos autónomos los reflejos suelen ser más lentos a la hora de tramitar este tipo de asuntos y anuncia que a lo largo del presente mandato propondrá la integración del Patronato de Deportes en el Ayuntamiento.

**IRIZPENA**

**DICTAMEN**

"2019. jardunaldiko Eibako Udal Kirol Patronatua Aurrekontuari dagozkion partidetan izendatutako kredituak urriak izanik, ondoren zehazten diren kontzeptuengatik egin behar diren gastuak presakotzat eta premiazkotzat hartu dira.

"Al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto del Patronato Municipal de Deportes para el Ejercicio 2019; se considera la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que se detallan.

Kreditu gehigarrien aurreneko espedientearen inguruan Alkateak egin duen proposamena eta, espediente horren inguruan Kontu-hartzaile jaunak egindako txostena ikusita,

Vistos, la propuesta de Alcaldía sobre el primer expediente de créditos adicionales del Presupuesto del Patronato Municipal de Deportes y el informe del Interventor sobre el expediente,

Kontuan hartuta 2019ko uztailaren 22ko Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de

Cuentas, Hacienda y Patrimonio de 22 de julio de 2019

Udalbatzak, aho batez, ondokoa erabaki du:

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

Eibarko Udal Kirol Patronatuaren Aurrekontuko kreditu gehigarrien aurreneko espedientea onartzea, honako zenbateko hauek dituena:

APROBAR el Primer expediente de créditos adicionales del Presupuesto del Patronato Municipal de Deportes cifrado en las siguientes cantidades:

LABURPENA KAPITULUKA

I. FUNTSEN JATORRIA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 8 | Finantza aktiboak | 16.032,00 |
| **GUZTIRA gehikuntzen adina** | | **16.032,00** |

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 1 | Pertson.Gastuak | 16.032,00 |
| **Kredituen Gehikuntza GUZTIRA** | | **16.032,00** |

Kreditu gehigarrien espediente hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman behar da argitara jendea jakinaren gainean gera dadin.”

RESUMEN POR CAPITULOS

I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 8 | Activos financieros | 16.032,00 |
| **TOTAL igual a los aumentos** | | **16.032,00** |

II. CREDITOS EN AUMENTO

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 1 | Gastos de personal | 16.032,00 |
| **TOTAL Créditos en aumento** | | **16.032,00** |

Asimismo el presente expediente de créditos adicionales, deberá publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su información pública.”

**6. San Andres Nagusien Egoitzaren Fundazio Publikoaren Aurrekontu-kreditu Gehigarrien lehen espedientea:**

**6. Primer expediente de Créditos Adicionales del Presupuesto de la Fundación Pública Residencia de Ancianos San Andrés.**

**Errasti Bernedo jaunak** aitortu du bere taldeari gai-zerrendaren puntu honek zalantzaren bat edo beste eragin diela, zeren, lehenik, ez dute batere zalantzarik pertsonalaren soldata-igoera aplikatzeko beharrari buruz eta eraikinaren txukuntze-lanak egiteari buruz. Baina, erreparoa sortzen da medikuaren kontratazioa dela-eta; beharrezkotzat jotzen dute, baina ahaztu gabe udal talde guztiek hartutako konpromisoa langileekin, destino-osagarria bi mailatan igotzeko. Bere iritziz, gai hau luzatzen ari denboran, PSE-EE (PSOE) udal taldeak eragozpenen bat izango balu bete beharrekoa den konpromiso baten aurrean.

El **Sr. Errasti Bernedo** reconoce que a su grupo este punto del orden del día les ha generado algún dilema, ya que, en primer lugar, no tienen duda alguna sobre la necesidad de aplicar el incremento retributivo del personal y realizar labores de adecentamiento del edificio. Pero, el reparo surge en el caso de la contratación del profesional médico, que consideran necesario, pero sin olvidar el compromiso adquirido por todos los grupos municipales con el personal para incrementar su complemento de destino en dos niveles. A su entender, este asunto se está dilatando en el tiempo como si el grupo municipal del PSE-EE (PSOE) plantease algún inconveniente a un compromiso que debe cumplirse.

**Alkate-udalburu jaunak** adierazi du medikuntzaren profesional faltak nagusien egoitzetan oso zabalduta dagoen arazo bat dela eta, San Andres Egoitzaren kasuan, oso zaila egiten ari da zerbitzu hori betetzea. Horren haritik, Kabiaren (Gipuzkoako Foru Aldundiaren erakunde autonomoa) arduradunak

El **Sr. Alcalde-Presidente** indica que la falta de profesionales de la medicina representa un problema generalizado en las residencias de personas mayores y, en el caso de la Residencia San Andrés, está siendo muy complicado cubrir este servicio. En este sentido, los responsables de Kabia,

kezkatuta daude gertakari honen aurrean eta, aurki, Osakidetzaren arduradunekin bilduko dira, saiatzeko zerbitzua Eusko Jaurlaritzak eman dezan.

organismo autónomo de la Diputación Foral de Gipuzkoa, se encuentran preocupados ante este hecho y, próximamente, se reunirán con representantes de Osakidetza para intentar que el servicio se preste por el Gobierno Vasco.

Soldaten igoerari dagokionez, adierazi du beti agertu dela horren alde eta gogorarazi du San Andres Egoitzaren azken Batzarrean erabaki zela lanpostuen balorazio-prozedurari ekitea, bidezko txostenak kontuan hartuta. Halaber, gogorarazi du langileekin lortutako konpromisoa, bi mailen igoerak otsailerako atzera begirako ondorioak izan ditzan; eta igoera horretan ez luke eraginik izango Kabian sartzeak 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera.

En lo que al incremento salarial se refiere, manifiesta que siempre se ha mostrado favorable a ello y recuerda que en la última Junta de la Residencia San Andrés se acordó iniciar el procedimiento de valoración de los puestos de trabajo, de acuerdo con los informes preceptivos correspondientes. Igualmente, recuerda el compromiso alcanzado con el personal para que el incremento de dos niveles tenga efectos retroactivos al mes de febrero, incremento que no se vería afectado por la futura integración en Kabia a partir del 1 de enero de 2020.

**IRIZPENA**

“2019. jardunaldiko San Andres Nagusien Egoitza Fundazio Publikoaren Aurrekontuari dagozkion partidetan izendatutako kredituak urriak izanik, ondoren zehazten diren kontzeptuengatik egin behar diren gastuak presakotzat eta premiazkotzat hartu dira.

**DICTAMEN**

“Al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto de la Fundación Pública Residencia de Ancianos San Andrés para el Ejercicio 2019; se considera la necesidad y

urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que se detallan.

Alkateak egin duen proposamena eta, espediente horren inguruan Kontu-hartzaile jaunak egindako txostena ikusita,

Vistos, la propuesta de Alcaldía, así como el informe del Interventor sobre el expediente,

Kontuan hartuta 2019ko uztailaren 22ko Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio de 22 de julio de 2019

Udalbatzak, aho batez, ondokoa erabaki du:

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

San Andres Nagusien Egoitza Fundazio Publikoaren Aurrekontuko Kreditu Gehigarrien Aurreneko espedientea ONARTZEA, honako zenbateko hauek dituena:

APROBAR del Primer expediente de Créditos Adicionales del Presupuesto de la Fundación Pública Residencia de Ancianos San Andrés cifrado en las siguientes cantidades:

LABURPENA KAPITULUKA

I. FUNTSEN JATORRIA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 8 | Finantza aktiboak | 164.435,51 |
| **Guztira gehikuntzen adina** | | **164.435,51** |

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 1 | Pertson.Gastuak | 144.435,51 |
| 2 | Gastu arrunt eta zerbitz | 20.000,00 |

RESUMEN POR CAPITULOS

I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 8 | Activos financieros | 164.435,51 |
| **TOTAL igual a los aumentos** | | **164.435,51** |

II. CREDITOS EN AUMENTO

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 1 | Gastos de personal | 144.435,51 |
| 2 | Gastos en b.corr. | 20.000,00 |

**<u>Kredituen Gehikuntza guztira 164.435,51</u>**

Kreditu gehigarrien espediente hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman behar da argitara jendea jakinaren gainean gera dadin."

**7. 2019ko Udal Aurrekontuaren Kreditu Gehigarrien bigarren espedientea.**

**Alkate-udalburu jaunak** azaldu du puntu hau hurrengoarekin dagoela lotuta, alegia, udal aurrekontuaren inbertsio izendunen eranskinaren aldaketari buruzkoarekin, eta haren xedea dela laguntzea Kalamua Judo Klubari lokal berri bat egokitzeko gastuei aurre egin ahal izan diezaien, orain arte zeuden lekua utzi egin behar izan baitute. Bozeramaleen Batzarrean adierazi zuen bezala, aitortu du ez diela nahikoa informaziorik eman udal taldeei, hainbat arrazoi tarteko, hala nola udal hauteskundeak gertu zirela. Laburbilduz, ez zuen erreflexurik izan fede onez pentsatu zuenean Kalamua Judo Klubak Udalbatza osatzen duten gainerako udal alderdi politikoekin jarriko zela harremanetan, nahiz eta ez zuen inolako arazorik izango proposamena

**<u>TOTAL Créditos en aumento 164.435,51</u>**

Asimismo el presente expediente de créditos adicionales, deberá publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su información pública."

**7. Segundo expediente de Créditos Adicionales del Presupuesto Municipal 2019.**

El **Sr. Alcalde-Presidente** explica que este punto está vinculado con el siguiente, relativo a la modificación del anexo de inversiones nominativas del presupuesto municipal, y su objeto es contribuir a que el Club de Judo Kalamua pueda hacer frente a los gastos derivados del acondicionamiento de un nuevo local, una vez que han sido desalojados del que han venido ocupando hasta la fecha. Tal y como expresó en la Junta de Portavoces, reconoce que no ha facilitado suficiente información a los grupos municipales debido a una serie de circunstancias, como, por ejemplo, la cercanía de las elecciones municipales. En definitiva, no contó con los reflejos suficientes cuando pensó de buena fe que el Club de Judo

azaltzeko. Horregatik guztiagatik, barkamena eskatu du eta baita azpimarratu ere kasu honetan garrantzitsuena dela Kalamua Judo Klubari behar dituen azpiegiturak ematea, beren jarduera aurrera eramaten jarraitu ahal dezaten.

Kalamua contactaría con los restantes partidos políticos que integran la Corporación, a pesar de que no habría tenido problema alguno en explicar esta propuesta. Por todo ello pide disculpas y destaca que lo importante de este caso es dotar al Club de Judo Kalamua de las infraestructuras suficientes para que puedan seguir desarrollando su actividad.

**Lamarain Cobo andreak** nabarmendu du herriko hainbat elkarte udal lokalen premian daudela, eta, Kalamua Judo Klubaren lana eta ekarpena zalantzan jarri barik, bai jartzen dituela zalantzan alkate-udalburu jaunaren hitzak; izan ere, EH Bildu udal taldeak gai honen berri izan du Ogasun Batzorde Aholkulariaren gai-zerrendan sartuta ikustean, eta bilera horretan inork ezin izan zuen azalpenik eman. Horri guztiari gehitu behar zaio Alkatetzak bazuela premia horren berri apirilaz geroztik.

La **Sra. Lamarain Cobo** destaca que diversas asociaciones de la ciudad presentan necesidades de locales municipales y, sin poner en duda el trabajo y la aportación del Club de Judo Kalamua, sí cuestiona las palabras del Sr. Alcalde-Presidente, puesto que el grupo municipal EH Bildu ha tenido conocimiento de esta asunto al verlo incluido en el orden del día de la Comisión de Trabajo de Hacienda, sin que en esa reunión nadie pudiera proporcionar explicación alguna. A todo ello hay que sumarle que la Alcaldía tenía conocimiento de esta necesidad desde el mes de abril.

Datu horiekin, bere taldeari hainbat zalantza sortzen zaizkio, uste dutelako lokal berria ikasturte hasierarako egon beharko dela egokituta. Halaber, zalantzagarria egiten zaie beste elkarte askok leku-premiak izatea eta hain azkar jokatu ez izana edo erantzunik jaso ez izana.

Con estos datos, a su grupo le surgen diversas dudas, ya que suponen que el nuevo local deberá estar acondicionado para el inicio del curso. También les resulta cuestionable que otras muchas asociaciones presentan necesidades de espacio y no se ha actuado con tanta celeridad o incluso ni

tan siquiera se les ha dado una respuesta.

Hitz batean, ez dago ados jarraitu den prozedurarekin eta iragarri du bere taldea abstenitu egingo dela, uste duelako gogoeta bat egin behar dela Eibarko elkarteek duten leku-premien inguruan.

En definitiva, muestra su disconformidad con el procedimiento seguido y anuncia la abstención de su grupo porque entiende que es necesaria una reflexión sobre las necesidades de locales de las asociaciones de Eibar.

Azkenik, uste du ez dela zehatza esatea alkate-udalburu jaunak nahikoa informazioa eman ez izana, benetako egia delako ez duela inolako informaziorik eman.

Por último, entiende que no es exacto que el Sr. Alcalde-Presidente no haya proporcionado suficiente información, ya que la realidad es que no ha facilitado ninguna.

**Alkate-udalburuak** adierazi du aitortu duela ez zuela gaiari buruzko inolako daturik eman, apirilean izan zuelako premia horren berri eta, geroago, udal teknikarien iritzia bildu zuen soluzio egokienaren inguruan; harrezkero ez zuen beste gestiorik egin. Udal hauteskundeak egin ondoren, martxan jarri zen prozedura eta une horretantxo eman beharko zukeen horren berri Bozeramaleen Batzarreko bileraren batean. Horregatik guztiagatik, barkamena eskatzen du beste behin.

El **Sr. Alcalde-Presidente** manifiesta que ha reconocido que no facilitó dato alguno sobre esta cuestión, ya que tuvo conocimiento de esta necesidad en abril y, posteriormente, recabó la opinión de los técnicos municipales sobre cuál podría ser la solución más adecuada; posteriormente no realizó ninguna gestión más. Una vez celebradas las elecciones municipales, se puso en marcha el procedimiento y, es entonces, cuando debió haber dado cuenta en una reunión de la Junta de Portavoces. Por todo ello, pide disculpas una vez más.

**Mendicute Rodríguez jauna** bat dator EH Bildu udal taldeko ordezkariaren iritziarekin alkate-udalburuak azalpenik ez ematearen inguruan, eta adierazi du uler dezakeela, hauteskunde-hitzordu baten aurrean, alderdi politikoen arteko harremanak aldatzea; baina, adierazi du, halaber, harrezkero bi hilabete pasatu direla jakin barik dirulaguntza-eskaeraren berri, harik eta Ogasun Lan Batzordearen deialdia izan arte. Horren haritik, galdetu du dirulaguntza ekonomikoa eskatzeko prozedura Alkatetzaren konpromisoaren bidez artikulatzen ote den, gero Udalbatzak berretsi behar duena eta, kasu horretan, organo hori izango litzateke arduraduna.

El Sr**. Mendicute Rodríguez** comparte la apreciación de la representante del grupo municipal EH Bildu sobre la ausencia total de explicaciones por parte del Sr. Alcalde-Presidente y afirma que puede comprender que, ante una cita electoral, las relaciones entre los grupos políticos varían; pero, asimismo, señala que desde entonces han transcurrido dos meses sin que tuvieran conocimiento de la petición de subvención hasta la convocatoria de la Comisión de Trabajo de Hacienda. En este sentido, pregunta si el procedimiento para solicitar la ayuda económica se articula a través de un compromiso de la Alcaldía que el Pleno ha de ratificar y, en caso contrario, este órgano sería el responsable.

Dirulaguntza hau ematearen justifikazioaren arabera, Ogasun Lan Batzordearen deialdiarekin batera bidali eta horrela eskuratu dutena, Kalamua Judo Klubak lehenik Udal Patronatuaren lankidetza eskatu zuen, baina erantzun zitzaion ez zela posible. Hori ikusita, harridura erakutsi du, erakunde horren deialdirik ez delako egin azken hilabeteetan, eta aitortzen du edozeinek egin dezakeela akats bat, baina zalantzan jartzen du alkate-udalburu jaunak konpromiso bat hartzea, non eta hura betetzea Udalbatzaren esku dagoenean. Testuinguru horretan, bere buruari galdetzen dio zer egoeratan geratuko litzatekeen Kalamua Judo Kluba, baldin

De acuerdo con la justificación de la concesión de esta ayuda económica a la que han tenido acceso junto con la convocatoria de la Comisión de Trabajo de Hacienda, el Club de Judo Kalamua solicitó en primera instancia la colaboración del Patronato Municipal de Deportes, pero se le respondió que no era posible. A la vista de esta circunstancia, muestra su sorpresa ya que este organismo no se ha convocado en los últimos meses y reconoce que cualquiera puede cometer un error, pero cuestiona que el Sr. Alcalde-Presidente asuma un compromiso cuyo cumplimiento depende del Pleno. En este contexto, se pregunta la situación

eta proposamen hau ez balitz onartuko jarraitutako prozedura dela-eta.

en la que quedaría el Club de judo Kalamua si esta propuesta no llegase a aprobarse debido al procedimiento seguido.

Azpimarratu du udal taldeek ez dutela nahikoa informaziorik, ez Udal Kirol Patronatua, ezta Bozeramaleen Batzarra ere ez delako bildu ea udal dagoen libre dagoen egiaztatzeko, edo aztertu ahal izateko 50.000 euroko diru-kopurua egokia den, edo, besterik gabe, irizpide bat ezartzeko, etorkizunean izan daitezkeen antzeko lankidetzen eskaerei begira.

Destaca que es ahora cuando los diferentes grupos municipales no cuentan con la información suficiente al no haberse reunido ni el Patronato Municipal de Deportes ni la Junta de Portavoces con el fin de comprobar si existe algún local municipal libre, o para poder analizar si la cantidad de 50.000 euros es la adecuada, o, simplemente, para fijar un criterio de cara a futuras peticiones de colaboración similares.

Laburbilduz, bere ustetan, kontu hau oso txarto kudeatu da eta adierazi du bere taldearen haserrea gaiari heltzeko izan duten moduarekin, oso arazo serioa sor diezaiokeelako herriko elkarte bati.

En síntesis, entiende que este asunto se ha gestionado francamente mal y expresa el malestar de su grupo con una forma de proceder que puede generar un problema muy serio a una asociación de la ciudad.

**Alkate-udalburu jaunak** erantzun du ez duela berriz ere barkamenik eskatuko eta, une honetatik aurrera, bilkura-honen aktaren transkripziora jotzen duela.

El **Sr. Alcalde-Presidente** responde que no va a insistir en sus disculpas y que, a partir de este momento, se remite a la transcripción del acta de esta sesión.

Dirulaguntza dela-eta, azaldu du izendun-izaerako beste edozein bezala izapidetu duela, halako kasuetan

Respecto a la subvención, manifiesta que se ha tramitado como cualquier otra de carácter nominativo

Udalbatzak erabakitzeko ahalmena duelako eta bere konpromiso bakarra izan dela izapidetzea erraztea sinetsita baitzegoen nekez egongo zirela desadostasuna gaiaren mamiaren inguruan. Halaber, azaldu du kontsultatu zuela Udal Kirol Patronatuaren arduradunarekin ea lokalik zeukan eskura 150 eta 200 m2-korik, baina erantzuna ezezkoa izan zela erreserbatu beharko ziren ordu-kopuruagatik, Klub horrek matrikula kopuru altua duelako. Jarraitu du esaten lokal pribaturen bat lortzeaz kezkatu zela, baina ez zuela elkartea konbentzitu; eta, azkenik, leku bat topatu dutela beren kabuz. Bestalde, emango litzatekeen kopurua arkitekto tekniko batek egindako txosten batean oinarritzen da, eta dagokion faktura aurkeztu ondoren ordainduko da.

donde el Pleno ostenta una cierta discrecionalidad y que su compromiso se ha limitado a facilitar esa tramitación con el convencimiento de que difícilmente existirían discrepancias sobre el fondo del asunto. Igualmente, explica que consultó con el responsable del Patronato Municipal de Deportes si existía algún local disponible de entre 150 y 200 m$^2$ , pero la respuesta fue negativa por el número de horas que debería reservarse debido al elevado número de matrículas con las que cuenta este Club. Continúa sus explicaciones relatando que se preocupó en conseguir algún local privado que no llegó a convencer a la asociación, quien finalmente ha obtenido uno por sus propios medios. Por su parte, la cantidad que se concedería se basa en un informe elaborado por un arquitecto técnico y se abonará una vez presentada la factura correspondiente.

Beraz, esan du garbi geratu dela kontu hau hobeto kudeatu zitekeela, baina ziur dago egitasmoak merezi zuela.

Por tanto, afirma que ha quedado claro que este asunto podía haberse gestionado mejor, pero está convencido de que el proyecto merece la pena.

**Mendicute Rodriguez jaunak** argitu du ez diola alkate-udalburu jaunari eskatzen berriz ere barkamena eskatzeko, baina ukatu egin du forma-akats baten aurrean gaudenik, hark baieztatu duen bezala. Era berean, harridura adierazi du alkate-udalburu jaunak eskaera

El Sr**. Mendicute Rodríguez** aclara que no pide al Sr. Alcalde-Presidente que insista en disculparse, pero niega que estemos ante un defecto de forma, tal y como ha afirmado. Del mismo modo, manifiesta su sorpresa por el hecho de que el Sr. Alcalde-Presidente

izapidetzera bakarrik konprometitzeagatik eta horren inguruko informazioa udal teknikariei bakarrik emateagatik, eta gauza bera ez egiteagatik beste udal taldeekin. Bere iritziz, garrantzitsuena ez da *mea culpa* aitortzea edo forma-akats baten aurrean gaudela esatea; benetako garrantzia duena da etorkizunari begira konpromiso bat hartzea informazioa partekatzeko udal talde guztiekin, izan ere, ez da lehen aldia Udalbatzara eramaten dena gai bat aldez aurretik behar bezala azaldu gabe. Ondorioz, espero du hau kasu puntual bat izatea, eta berriz halakorik ez gertatzea.

se comprometiera únicamente a tramitar la petición e informase a los técnicos municipales al respecto, pero no hiciera lo mismo con los grupos municipales. En su opinión, lo importante no es entonar el *mea culpa* o escudarse en que estamos ante un defecto de forma, sino que lo realmente importante es adquirir de cara al futuro un compromiso para compartir la información con todos los grupos municipales, porque no es la primera vez que se somete a la consideración del Pleno un asunto sobre el que no se ha informado debidamente. En consecuencia, espera que éste sea un caso puntual que no vuelva a repetirse.

**Alkate-udalburu jaunak** ziurtatu du konpromiso hori existitzen dela.

El **Sr. Alcalde-Presidente** asegura que ese compromiso existe.

**IRIZPENA**

**DICTAMEN**

"2019. jardunaldiko Udal Aurrekontuko partidetan izendatutako kredituak urriak direnez, ondoren zehazten diren kontzeptuengatik egin behar diren gastuak presakotzat eta premiazkotzat hartu dira.

Udal Aurrekontuaren kreditu gehigarrien bigarren espedientearen

"Al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto Municipal para el Ejercicio 2019; se considera la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que se detallan.

Vistos, la propuesta de Alcaldía sobre el segundo expediente de créditos

inguruan alkateak egin duen proposamena, eta espediente horren inguruan kontu-hartzaileak egindako txostena ikusita,

Kontuan hartuta 2019ko uztailaren 22ko Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Osoko Bilkurak, gehiengoz, aldeko bederatzi botoren gehiengoarekin (PSE-EE (PSOE) eta Elkarrekin Eibar-Podemos) eta hamaika abstentziorekin (Eibarko EAJ-PNV eta EH Bildu), ondokoa erabaki du:

**ERABAKIA**

Udal Aurrekontuko Kreditu Gehigarrien Bigarren espedientea ONARTZEA, honako zenbateko hauek dituena:

LABURPENA KAPITULUKA

I. DIRUAREN NONDIK NORAKOA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 8 | Finantza aktiboak | 50.000,00 |
| Guztira gehikuntzen adina | | 50.000,00 |

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 7 | Kapital Transferentziak | 50.000,00 |

adicionales del Presupuesto Municipal y el informe del Interventor sobre el expediente,

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio de 22 de julio de 2019.

El Pleno de la Corporación, por mayoría de nueve votos a favor (PSE-EE (PSOE) y Elkarrekin Eibar-Podemos) y once abstenciones (Eibarko EAJ-PNV eta EH Bildu), adopta el siguiente:

**ACUERDO**

APROBAR del Segundo expediente de Créditos Adicionales del Presupuesto Municipal cifrado en las siguientes cantidades:

RESUMEN POR CAPITULOS

I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 8 | Activos financieros | 50.000,00 |
| TOTAL igual a los aumentos | | 50.000,00 |

II. CREDITOS EN AUMENTO

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 7 | Trasnf. Capital | 50.000,00 |

Kredituen Gehikuntza guztira 50.000,00

Kreditu Gehigarrien espediente hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman behar da argitara jendea jakinaren gainean gera dadin."

**8. Dirulaguntzen plan estrategikoaren eranskina eta dirulaguntza izendunen eranskina aldatzeko proposamena, Kalamua Judo Klubarentzako dirulaguntza sartzeko.**

**IRIZPENA**

"Alkatearen proposamena ikusita, 2019rako onartutako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren Eranskina eta Dirulaguntza Izendunen Eranskina aldatzeko egindakoa.

Kontuan hartuta 2019ko uztailaren 22ko Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordearen aldeko irizpena.

TOTAL Créditos en aumento 50.000,00

Asimismo el presente expediente de Créditos Adicionales, deberá publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su información pública."

**8. Propuesta de modificación del anexo del Plan estratégico de subvenciones y modificación del anexo de subvenciones nominativas, para inclusión de subvención a Club de Judo Kalamua.**

**DICTAMEN**

"Vistas la propuesta de Alcaldía para modificación del Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones y la modificación del Anexo de Subvenciones Nominativas, aprobados para el año 2019.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio de 22 de julio de 2019

Osoko Bilkurak, gehiengoz, aldeko bederatzi botoren gehiengoarekin (PSE-EE (PSOE) eta Elkarrekin Eibar-Podemos) eta hamaika abstentziorekin (Eibarko EAJ-PNV eta EH Bildu), erabaki hauek hartu ditu:

El Pleno de la Corporación, por mayoría de nueve votos a favor (PSE-EE (PSOE) y Elkarrekin Eibar-Podemos) y once abstenciones (Eibarko EAJ-PNV y EH Bildu), adopta los siguientes:

**ERABAKIAK**

**ACUERDOS**

LEHENENGOA: Onartzea Eibarko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren Eranskinaren aldaketa, ondoren aipatuko den dirulaguntza hau jasota:

PRIMERO: Aprobar la modificación del Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Eibar, incorporando la siguiente línea de subvención,

| ***DIRULAGUNTZA LERROA*** **LINEA DE SUBVENCION** | ***XEDEAK*** **OBJETIVOS** | ***LORTU NAHI DENA*** **EFECTOS PRETENDIDOS** | ***URTEKO KOSTUA*** **COSTE ANUAL** | ***FINANTZAZIOA*** **FINANCIACION** | ***EMATEKO PROZEDURA*** **PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN** |
|---|---|---|---|---|---|
| Xedea: Judoan eta Jiu Jitsun aritzeko lokal bat egokitzeko dirulaguntza<br>Objeto: Ayuda a la habilitación de un local para la práctica del Judo y el Jiu Jitsu en Eibar | Judo Club Kalamuak bere jardueran segitzeko egin beharreko ahalegin ekonomikoa arintzea Aliviar el esfuerzo económico que el Club de Judo Kalamua debe realizar para seguir desarrollando su actividad. | Bermatzea gure herrian Judoa eta Jiu Jitsu egiten jarraitzea<br>Garantizar que en nuestra ciudad se siga fomentando la práctica del Judo y el Jiu Jitsu. | 50.000 € | Finantzazioa Udalaren beraren funtsekin egingo da, aurrekontuaren VII. Kapituluaren kargura.<br>La financiación se llevará a cabo con fondos propios, con cargo al capítulo VII del presupuesto. | Dirulaguntza mota: dirulaguntza izenduna<br>Tipo de subvención: subvención nominativa. |

BIGARRENA: Dirulaguntza izendunen eranskinean aldaketa egitea aurreko atalean adierazitako dirulaguntza izendunaren lerro berri hori jasotzeko:

SEGUNDO: Aprobar modificar el anexo de subvenciones nominativas del presupuesto en vigor para recoger la nueva línea de subvención:

| DIRULAGUNTZA LERROA LINEA DE SUBVENCION | URTEKO KOSTUA COSTE ANUAL | FUNTZIONALA FUNCIONAL |
|---|---|---|
| XEDEA: Eibarren Judoa eta Jiu Jitsu egiteko lokal bat egokitzen laguntzea.<br>OBJETO: Ayuda a la habilitación de un local para la práctica del Judo y el Jiu Jitsu en Eibar.<br>ONURADUNA: KALAMUA JUDO KLUBA<br>BENEFICIARIO: CLUB DE JUDO KALAMUA | 50.000 € | 341.00 |

**9. Eibarko EAJ-PNV Taldeak aurkeztutako mozioa Musika Eskolak atezain bat izan dezan.**

**9. Moción presentada por el Grupo Eibarko EAJ-PNV para que la Escuela de Música disponga de un conserje.**

**Mendicute Rodríguez** jaunak bere taldearen izenean mozioa erretiratzen duela iragarri du, ez dutelako akordiorik lortu PSE-EE (PSOE) udal taldearekin erdibideko mozio bat aurkezteko.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** anuncia en nombre de su grupo la retirada de la moción al haber alcanzado un acuerdo con el grupo municipal del PSE-EE (PSOE) para la presentación de una moción transaccional.

**GAI-ZERRENDATIK KANPO**

Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, eta urgentziazko aitorpena egin ondoren, aho batez berretsia, honako gai hauek aztertu dira:

**A) Eibarko EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) Taldeen erdibideko mozioa Juan Bautista Gisasola Musika Eskolarako atezain bat kontratatzeari buruzkoa.**

**Errasti Bernedo jaunak** adierazi du bere taldeari ere zalantza batzuk sorrarazten dizkiola gai honek. Lehenik eta behin, adierazi du mozioa ez dela modurik egokiena hura eztabaidatzeko, Udalean hogeita lau batzorde eta hainbat foro daudelako horretarako. Halaber, gogorarazi du joan den agintaldian Musika Eskolari buruzko hausnarketa-talde bat martxan jartzekoa zela, baina badirudi ez dagoela gogo handirik horretarako, behin bakarrik bildu delako. Eztabaida

**FUERA DEL ORDEN DEL DÍA**

De acuerdo con lo previsto en el artículo 82.3 en relación con el artículo 138 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales y previa declaración de urgencia ratificada por unanimidad, se pasan a tratar los siguientes asuntos:

**A) Moción transaccional de Eibarko EAJ.PNV y PSE-EE (PSOE) relativa a la contratación de un conserje para la Escuela de Música Juan Bautista Guisasola.**

El **Sr. Errasti Bernedo** manifiesta que a su grupo este asunto también le genera algunas dudas. En primer lugar, indica que la moción no es el modo más adecuado para debatirlo, puesto que en el Ayuntamiento existen veinticuatro comisiones y diversos foros para ello. Asimismo, recuerda que en el pasado mandato debía haberse puesto en marcha un grupo de reflexión sobre la Escuela de Música, pero parece ser que no existe voluntad para ello, ya que únicamente se ha reunido en una

falta horrek eragin du alderdi bakoitzak proposamen solteak egitea, esaterako, erakunde autonomo honetan ematen diren ikasgaien prezio publikoak murriztea. Laburbilduz, errepikatu du gogoeta sakon bat egin behar dela.

ocasión. Esta falta de debate ha conducido a que cada partido formule propuestas aisladas al respecto, como, por ejemplo, la disminución de los precios públicos de las enseñanzas impartidas en este organismo autónomo. En síntesis, reitera la necesidad de esa profunda reflexión.

Irakasleen eskaerari dagokionez, eurek ere ikusten dute pertsonaren bat behar dela, baina ez dute garbi atezain bat izan behar ote den. Horren harira, azpimarratu du Eskolako plantillan badagoela idazkari bat, nahiz eta haren ordutegia ez egon koordinatua irakasleen jarduerekin; ondorioz, lehenik kontu hori konponduko balitz, buruhauste asko saihestuko lirateke.

En lo que a la petición del profesorado se refiere, considera acertada la necesidad de contar con algún tipo de personal, pero duda de que deba ser un conserje. A este respecto, destaca la existencia en la plantilla de la Escuela de un secretario, aunque su horario no se encuentra coordinado con el de las actividades docentes; en consecuencia, si en primer lugar se solucionase esta cuestión se evitarían muchos quebraderos de cabeza.

Ildo beretik, urtarrilean erakunde hau Udaleko egituran sartzea aurreikusita dagoenez, komenigarria izango litzateke irailetik aurrera Portaleko eraikinaren atezaintza partekatzeko aukera aztertzea eta, beharrezkoa balitz, hura indartzea, Eskolako erabiltzaileei zerbitzu hobea eskaintzeko xedez.

En esta misma línea, al estar prevista en enero la integración de este organismo en la estructura del Ayuntamiento sería conveniente estudiar la posibilidad de compartir la conserjería del edificio de Portalea a partir del mes de septiembre y reforzarla, si fuera necesario, con la finalidad de ofrecer así un mejor servicio a los usuarios de la Escuela.

Ikusten denez, hainbat irtenbide daude egoera konpontzeko eta EH Bildu udal taldeak uste du lehenbailehen egin behar dela.

Como puede verse, existen diversas alternativas para solucionar la situación y el grupo municipal de EH Bildu cree que debe hacerse cuanto antes.

Eztabaidagai den mozioa dela-eta, adierazi du hasieran bi mozio desberdin planteatu zirela: bat Eibarko EAJ-PNV udal taldearena eta bestea PSE-EE (PSOE) udal taldearena, hortaz, eskatu zuten biak bateratzea, eta halaxe egin da. Horregatik, iragarri du bere taldeak baiezko botoa emango diola erdibideko mozioari.

Respecto a la moción objeto de debate, indica que en un primer momento se plantearon dos diferentes: una del grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV y otra del grupo municipal del PSE-EE (PSOE), por lo que apelaron a un entendimiento que finalmente se ha alcanzado. Por todo ello, anuncia el voto favorable de su grupo a la moción transaccional.

**Mendicute Rodríguez jaunak** azpimarratu du gai honi buruzko eztabaidak hamarkada bat baino gehiago daramala eta sortu zela Musika Eskola Errebal kaletik eraman zutenean, orduan kendu baitzen atezainaren figura. Horren harira, zaila da imajinatzea erakunde honen funtzionamendua halako pertsonalik gabe. Gaur egun, Musika Eskolako idazkaria lanaldi-erdian aritzen da atezaintzari dagozkion eginkizunetan, baina joan den agintaldian erabaki zen ez zituela zeregin horiek egin behar. Hain zuzen, bere taldeak ez daki seguru zein izan behar den figura zehatz hori, baina konbentzituta dago beharrezkoa dela pertsona bat izatea irakastorduetan pasilloetako zaintzaz

El **Sr. Mendicute Rodríguez** destaca que la discusión sobre este asunto se remonta a más de una década cuando se produjo el traslado de la Escuela de Música desde su anterior ubicación en la calle Errebal, eliminándose la figura del conserje. En este sentido, resulta difícil imaginar el funcionamiento de este organismo sin ese tipo de personal. En la actualidad, el secretario de la Escuela de Música dedica media jornada a las funciones propias de conserjería, pero en el pasado mandato ya se concluyó que no debía realizar esos cometidos. En concreto, su grupo no está seguro de cuál debe ser la figura concreta, pero sí se muestra convencido de que es necesario contar con una persona

arduratzeko, ezinbesteko lana baita hori gero eta ikasle gehiago baitago. Horrekin lotuta, azaldu du gaur egun eskolek ordu erdi irauten dutela, eta horrek eztabaida pedagogiko bat zabalduko lukeela ea hori nahikoa denbora den , izan ere, denbora horren ia erdia instrumentua prestatzeko beha da.

durante las horas lectivas que, entre otras tareas se encargue de la vigilancia de los pasillos, tarea absolutamente necesaria una vez que se ha incrementado el alumnado. A este respecto, explica que actualmente las clases duran media hora, lo que abriría un debate pedagógico sobre si es tiempo suficiente ya que prácticamente la mitad de ese tiempo hay que dedicarlo a la preparación del instrumento.

Nolanahi ere, hau ez da izan bere taldearen eskaera bat; irakasleek berek jo dute udal taldeengana eta bere alderdia eskakizun horri bide eman besterik ez du egin, Bilkurak erabaki bat har dezan. Bere nahia da akordio bat lortzea eta espero du gai hau beste erakunde batzuetan eztabaidatu beharrik ez izatea, inportanteena delako jakitea eskaera hau dagoela, eta aztertu ondoren erantzun bat ematea. Xede hori gogoan izanik, bere taldea akordio batera iritsi da PSE-EE (PSOE) udal taldearekin.

No obstante, esta no es una petición de su grupo, sino que ha sido el propio profesorado el que se ha dirigido a los diferentes grupos municipales y el suyo se ha limitado a darle cauce con la finalidad de que el Pleno adopte una decisión. Expresa el deseo de alcanzar un acuerdo y no esperar a debatir esta cuestión en otros órganos, porque lo importante es ser conscientes de que existe esa petición, debatirla y darle una respuesta. Con ese objetivo en mente, su grupo ha llegado a una entente con el grupo municipal del PSE-EE (PSOE).

Ondorioz, argi laga du Eibarko EAJ-PNV udal taldeak konpromisoa hartzen duela Musika Eskolako jarduerak bultzatzen jarraitzeko eta, bide batez, aitortza egin nahi dio Eskolaren hezkuntza-komunitateari oro har, eta, batez ere, irakasleei, egindako

En consecuencia, expresa el compromiso del grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV para continuar impulsando las actividades de la Escuela de Música y respaldar la labor desarrollada por su comunidad educativa en general, y su profesorado,

lanagatik eta, azkenaldian, martxan jartzen ari diren proiektuengatik.

Azkenik, azaldu du Musika Eskola bultzatzen dutela, heziketa musikala proiektu estrategiko bat delako herriarentzat, kirol jardueraren sustapena izan daitekeen modu berean.

en particular, a la luz de los nuevos proyectos que están llevando a cabo.

Para finalizar, aclara que ese apoyo se debe a que la educación musical es un proyecto estratégico para la ciudad como pueda serlo el fomento de la actividad deportiva.

**Iraola Iriondo jaunak** uste du ez zegoela mozio hau aurkeztu beharrik, zeren, EH Bildu udal taldearen bozeramaleak adierazi duenez, erakunde ugari daude gaia eztabaidatzeko eta, zehazkiago, Musika Eskolaren Patronatuari zegokion eztabaida, gestioa hutsa delako. Horren harira, argitu du gobernu-taldea lanean ari zela jada eskari horren inguruan, irakasleen ordezkariekin bildua zela eta bere asmoa ez zela soluzioa atzeratzea, baizik eta gaia behar bezala aztertzea. Hala, eskari hori Pertsonaleko Batzorde Aholkulariaren 2019ko uztaileko 15eko bileran egin zen eta ondorioa izan zen gai hura Musika Eskolaren Patronatuari zegokiola. Azken batean, kontua da gaia behar besteko lasaitasunarekin aztertzea, baloratu ahal izateko zer figura den egokiena.

El **Sr. Iraola Iriondo** entiende que esta moción no debería haberse presentado puesto que, tal y como ha manifestado el portavoz del grupo municipal de EH Bildu, existen numerosos órganos para debatir el asunto y, en concreto, el Patronato de la Escuela de Música al tratarse de simple gestión. En este sentido, desvela que el equipo de gobierno ya se encontraba trabajando esta petición, puesto que ya se habían reunido con representantes del profesorado y su intención no era retrasar la solución sino ocuparse del tema debidamente. Así, esa petición se planteó en la reunión de la Comisión Asesora de Personal, del 15 de julio de 2019, concluyéndose que su estudio debía remitirse al Patronato de la Escuela de Música. Se trata, en definitiva de analizar la cuestión con el sosiego necesario para poder valorar qué figura es la más adecuada.

PSE-EE (PSOE) udal taldearen bozeramalearen iritziz, balirudike mozio honekin prozedura zuzena

En opinión del portavoz del grupo municipal del PSE-EE (PSOE), parecería que con esta moción se quiere

saihestu nahi dela, hala ondorioztatzen baita Eibarko EAJ-PNV udal taldeak hasieran aurkeztutako mozioaren testutik, hauxe esaten duenean *"Udalbatzak hertsatu egiten du alkatea Musika Eskolako irakasleen eskaria kontuan hartzera atezain baten beharrari buruz".* Baina, planteamendu horretatik zalantzak sor daitezke eta beharrezkoa da gauzak argitzea. Horregatik guztiagatik, pozik azaldu da lortutako akordioagatik, era horretara gaia bideratu egiten delako Musika Eskolako gobernu-organoan aztertzeko; eta organo hori izango da, hala balitz kasua, erabakiko duena eskatutako pertsonalak egin beharreko zereginak atezain batenak diren ala ez. Gainera, udal organigraman sartzen den unetik, Kultura Batzorde Aholkularia izango da erabakiko duena zein den bide egokiena eskari horri erantzuteko.

Hitz batez, amaitu du esanez erdibideko mozioak gobernu-taldearen hasierako nahia jasotzen duela, alegia, gaia dagokion organoan eztabaidatu behar dela.

**Ibáñez Anuncibay andreak** zehaztu du Pertsonaleko Batzorde

evitar el procedimiento correcto, tal y como se deduce del propio texto de la moción inicial presentada por el grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV cuando afirma que *“el Pleno municipal insta al Alcalde a tener en cuenta la petición de los profesores de la Escuela de Música sobre la necesidad de un conserje”*. Pero, a partir de este planteamiento pueden surgir dudas y aclaraciones necesarias. Por todo ello, se felicita por el acuerdo alcanzado, ya que de esta manera se reconduce la cuestión para su estudio en el órgano de gobierno de la Escuela de Música, que, en su caso, determinará si las funciones que debe desempeñar el personal solicitado son propias de un conserje. Además, a partir de la integración en el organigrama municipal será la Comisión Asesora de Cultura la que determine la vía adecuada para canalizar esa petición.

En definitiva, concluye que la moción transaccional recoge el deseo original del equipo de gobierno de debatir el asunto en los órganos correspondientes.

La **Sra. Ibáñez Anuncibay** puntualiza que en aquella reunión de la

Aholkulariaren bilera hartan gai honekin lotutako hainbat alderdi eztabaidatu zirela, baina ez zela erabaki zehatzik hartu; gainera, Batzordeburu andreak ez zuen aitortu alkate-udalburu jauna Musika Eskolako irakasleen ordezkaritza batekin bildu zenik 2019ko uztailaren 2an, nahiz eta berak hori jakin.

Comisión Asesora de Personal se debatieron sobre diversos aspectos relacionados con este tema pero sin adoptarse una decisión concreta; además, en ningún momento la Presidenta de la Comisión reconoció que el Sr. Alcalde-Presiente se había reunido con una representación del profesorado de la Escuela de Música el 2 de julio de 2019, tal y como le constaba.

**Telleria Echeverria andreak** argitu nahi du ez zela saiatu ezer ezkutatzen, ez zekielako bilera hori egin zenik.

La **Sra. Telleria Echeverria** desea aclarar que no intentó ocultar nada puesto que simplemente desconocía que esa reunión se hubiera producido.

**Alkate-udalburu jaunak** esan du 2019ko uztailaren 2an bilera bat zeukala Musika Eskolako irakasleen ordezkariekin, eta, bere ezin izan zenez joan, geroago, jarduneko alkateorde-eginkizunetan ari zen pertsonak egindako eskarien berri eman ziola eta, ondoren, erakunde autonomoaren teknikariarekin bildu zela, Patronatuaren bilera bat prestatzeko beharrezko informazio guztiarekin. Halaber, gogorarazi du 2020ko urtarrilaren 1era arte, Langileria Batzordeak ezin duela jorratu Musika Eskolako langileekin lotutako gairik. Halaber, nahiz eta atezain-lanpostua sortzeko akordioa lortu, ezingo zen hura gauzatu datorren irailean, ez

El **Sr. Alcalde-Presidente** relata que el pasado 2 de julio de 2019 estaba prevista una reunión con representantes del profesorado de la Escuela de Música a la que no pudo asistir; posteriormente, la persona que en aquel momento ejercía las labores de Alcalde en funciones le transmitió las peticiones realizadas y, posteriormente, se reunió con el técnico del organismo autónomo para preparar una reunión del Patronato con toda la información necesaria. Igualmente, recuerda que hasta el 1 de enero de 2020, la Comisión de Personal no puede tratar asuntos relacionados con el personal de la Escuela de Música. Asimismo, aunque se hubiera alcanzado el acuerdo para crear el puesto de

baitago aurrekontu-kontsignaziorik erakunde horren 1. kapituluan eta, ondorioz, beharrezkoa izango litzateke dagokion aurrekontu-aldaketa egitea, bai eta behar diren akordioak ere bai Musika Eskolaren gobernu-organoan bai eta Udal bilkura honetan ere.

conserje, su incorporación no podría producirse el próximo mes de septiembre, ya que no existe consignación presupuestaria en el capítulo 1 de dicho organismo y, en consecuencia, sería necesario, realizar la modificación presupuestaria adecuada, así como adoptar los acuerdos pertinentes tanto en el órgano de gobierno de la Escuela de Música como en este Pleno.

**Errasti Bernedo jaunak** argitu du bere taldeak aztertu zituela pertsonal horrek bete beharko lituzkeen eginkizunak eta, irakasleek adierazitako premiazkotasuna zela-eta, oraingo plantillako pertsona batek bere gain hartzea proposatu zutela. Ondorioz, hari buruzko kontsentsua dagoenez gero, ez du uste beharrezkoa denik eztabaidan gehiago sakontzea.

El **Sr. Errasti Bernedo** aclara que su grupo analizó las funciones que debía cumplir ese personal y, ante la premura expresada por el profesorado, propusieron las asumiera una persona de la plantilla actual. En consecuencia, dado que existe consenso al respecto, no considera necesario ahondar más en la discusión.

**Mendicute Rodríguez jaunak** zehaztu du ez dagokiola berari erabakitzea zer pertsonak bete behar dituen zeregin horiek eta azaldu du komeniko litzatekeela zehaztea zer gai planteatu daitezkeen mozioen bidez, ezpada benetan molestatzen duena horiek aurkeztea izatea. Horren harira,

El **Sr. Mendicute Rodríguez** puntualiza que a él no le corresponde determinar qué persona debe realizar esas funciones y manifiesta que sería conveniente que se concretase cuáles son los temas que pueden plantearse a través de mociones, a no ser que lo que realmente resulte molesto sea la propia

esan du bere taldeak erabaki zuela mozio bat aurkeztea Musika Eskolako irakasleen eskariari buruzkoa, ez zekielako noiz deituko haren Gobernu Batzordearen bilera; geroago jakin dutena ikusita, uztailean bertan egin zitekeen. Horregatik guztiagatik, erabaki zuten kontu hori Pertsonalaren Batzorde Aholkularian jorratzea, udal talde guztien arteko eztabaidarako organo egokiena zela uste zutelako. Laburbilduz, beren desio bakarra da Musika Eskola babestea eta pozik azaldu da erdibideko mozio hau aurkeztea lortu izanagatik.

presentación de estas. En este sentido, precisa que su grupo decidió presentar una moción sobre la petición del profesorado de la Escuela de Música porque desconocía cuándo se convocaría la reunión de su Junta de Gobierno, aunque, a la vista de lo que han podido saber posteriormente, podría haberse celebrado el mismo mes de julio. Por todo ello, decidieron tratar este asunto en la Comisión Asesora de Personal, al considerarlo el órgano más adecuado para el debate entre todos los grupos municipales. En definitiva, su único deseo es apoyar a la Escuela de Música y celebra que se haya conseguido presentar esta moción transaccional.

Eztabaida amaituta, Udalbatzarrak, aho batez, onartu ditu honako

Finalizado el debate, el Pleno Municipal, por unanimidad, aprueba los siguientes

**ERABAKIAK**

**ACUERDOS**

1.- Eibarko Udal Osoko bilkurak aitortzen du Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako irakasleek duten konpromisoa Eibarren kalitatezko irakaskuntza emateko, gainerako Udal Eskola guztietako irakasleei helarazten dien aitortza.

1.- Que el Pleno Municipal de Eibar reconoce el compromiso que el profesorado de la Escuela de Música Juan Bautista Guisasola tiene por impartir en Eibar una enseñanza de calidad, haciendo extensivo este reconocimiento al profesorado del resto de Escuelas Municipales.

2.- Musika Eskolako Patronatuak Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako irakasleek atezaintzako pertsonala kontratatzeko egin duten eskaera aintzat hartu eta behar bezala azter dezala uda ostean egingo duen lehenengo bileran.

2.- Que la petición trasladada por el profesorado de la Escuela de Música Juan Bautista Guisasola, consistente en la contratación de personal de conserjería, sea tomada en consideración y debidamente estudiada por el Patronato de la Escuela de Música en la primera sesión que celebre a la vuelta del verano.

3.- Patronatuak behar bezala berrazter ditzala irakasleek zehaztu dituzten eginbeharrak, eginbehar horietako batzuk atezaintzako pertsonalari dagozkion zereginak gaindi litzaketenak izan daitezkeelako.

3.- Que dicho Patronato replantee debidamente, en su caso, las necesidades trasladadas por el profesorado por considerar que algunas de ellas pudieran exceder de las funciones propias del personal de conserjería.

4.- Musika Eskola Udalean behin betiko integratu ondoren, Kultura Batzordeak hartuko du bere gain orain arte Musika Eskolaren Patronatuak egin duen lana, oraingo gai hau barne; eta, beharrezkoa izanez gero, Eibarko Udaleko Antolaketa eta Pertsonal Sailari eskatuko dio eskola horretan azaleratutako beharrak edo premiak eta planteatutako konponbideak behar bezala aztertzeko, eta gaiari behin betiko konponbidea emateko.

4.- Que una vez definitiva la integración, la Comisión de Cultura será la encargada continuar con la labor llevada a cabo hasta la fecha por el Patronato de la Escuela de Música, incluido el presente asunto, encargándose, si fuera necesario, de encomendar al Departamento de Organización y Personal del Ayuntamiento de Eibar que analice debidamente las necesidades afloradas, las soluciones planteadas y resuelva definitivamente al respecto.

## 10. Galderak eta erreguak.

- **Garate Larrañaga andreak** Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Aholkulariburu andrearen prentsa-adierazpen batzuk konfirmatu nahi ditu, non hitzez hitz hauxe esaten zuen:

  *"Halaber, mantendu egingo da udal ekarpen berezien politika, 500.000 euro ingurukoa, Gizarte Larrialdietarako dirulaguntzen eskariari erantzuteko; izan ere, Eusko Jaurlaritzak — gaian eskumena duena— jarri beharreko baliabideak urriak izan dira.*

  Testuinguru horretan, ez daki zehazki zein den kopuru horri dagokion kontzeptua, zeren Eibarko Udalak kontu orokorraren bidez dituen datuen arabera, Eusko Jaurlaritzak 2018an 388.000 euroko ekarpena egin zuen, eta justifikazio-kontua 488.077,65 eurokoa izan zen. Beraz, udal ekarpena 92.000 euro ingurukoa izango litzatzeke, eta hori kontraesanean dago albistearen edukiarekin, aditzera ematen delako Eibarko Udalak 500.000 euroko ekarpen berezi bat egin duela.

## 10. Ruegos y Preguntas.

- La **Sra. Garate Larrañaga** desea confirmar unas declaraciones realizadas en la prensa por la Sra. Presidenta de la Comisión Asesora de Servicios Sociales, en las que textualmente afirmaba:

  *"También se va a mantener la política de aportaciones municipales extraordinarias, por un valor de entorno a los 500.000 euros, para atender la demanda de las Ayudas de Emergencia Social ante la escasez de recursos destinados por parte del Gobierno Vasco, competente en la materia".*

  En este contexto, desconoce exactamente cuál es el concepto al que se refiere esa cantidad, puesto que, de los datos de los que dispone el Ayuntamiento de Eibar a través de la cuenta general, el Gobierno Vasco realizó en el año 2018 una aportación de 388.000 euros en estas ayudas, mientras que la cuenta justificativa ascendió a 488.077,65. Por tanto, la aportación municipal se situaría en los 92.000 euros, lo que resulta contradictorio con el contenido de la noticia puesto que se da a entender que el Ayuntamiento de Eibar ha realizado una aportación extraordinaria de 500.000 euros.

**Sarasqueta Aramburu andreak** erantzun du interpretazio hori ez dela zuzena; kontua da kontzeptu horrengatik gastatu zen kopuru osoa joan den urtean 500.000 euroko zenbatekora hurbildu zela eta Eusko Jaurlaritzak 300.000 euro baino pixka bat gehiago jarri zuela; hala, kritikatzen zuena zen diferentzia udal aurrekontuaren kargu joatea, noiz eta Gizarte Larrialdietako Dirulaguntzak erkidegoko gobernuaren eskumen direnean.

La **Sra. Sarasqueta Aramburu** responde que esa interpretación no es correcta, porque la realidad es que el gasto total por este concepto a lo largo del pasado ejercicio se acercó a esa cifra de 500.000 euros y el Gobierno Vasco aportó algo más de 300.000 euros; así, lo que criticaba era que la diferencia corriera a cargo del presupuesto municipal cuando las Ayudas de Emergencia Social son competencia del ejecutivo autonómico.

**Garate Larrañaga andreak** berriz ere esan du prentsa-albisteak datu bat ematen duela egia ez dena.

La **Sra. Garate Larrañaga** insiste en que la noticia de prensa recoge un dato que no es cierto.

**Sarasqueta Aramburu andreak** erantzun du komunikabideak zuzen jasotzen duela berak esan nahi izan zuena.

La **Sra. Sarasqueta Aramburu** replica que el medio de comunicación sí recoge correctamente lo que quiso decir.

- **Mendicute Rodríguez jaunak** gogorarazi du 2018ko apirilaren 28an aurkeztu zela Obra Batzorde Aholkularian Maltzagaren eta Azitainen arteko bidegorriaren egitasmoa, Gipuzkoako Foru Aldundiak idatzia. Bilkura haren aktan jasotzen denez, Obra sailaren

- El **Sr. Mendicute Rodríguez** recuerda que el 28 de abril de 2018 se presentó en la Comisión Asesora de Obras el proyecto de bidegorri entre Maltzaga y Azitain, redactado por la Diputación Foral de Gipuzkoa. Tal y como se recoge en el acta de aquella reunión, el Jefe del

buruak zera adierazi zuen: "*autopistako bidegurutzeari emandako soluzioa ez da egokiena eta beste irtenbide batzuk baloratzea eskatu behar zaio Foru Aldundiari*. *Obra Batzorde Aholkularia jakinaren gainean geratu zen.”* Halaber, bai udal langileak bai Batzordeburuak iragarri zuten alegazioak aurkeztuko zizkiotela proiektu horri; horregatik, 2019ko apirilaren 2an, bere taldeak alegazio-idazki horren kopia bat eskatu zuen eta inolako informaziorik jaso ez zutenez, joan den astean berriz ere eskaria egin zion batzordeburuari. Ondorioz, erregutzen du eskatutako dokumentazioa emateko eta galdetzen du ea Eibarko Udalak alegazio horiek jarri dituen eta zein diren emandako pausoak Maltzagaren eta Azitainen arteko bidegorriaren trazatua aldatzeko.

Departamento de Obras manifestó que “*la solución dada en el cruce de la autopista no se considera la más acertada y se va a solicitar a la Diputación que se valoren otras alternativas. La Comisión Asesora de Obras se da por enterada*.” Asimismo, tanto el empleado municipal como el entonces Presidente de la Comisión anunciaron la presentación de alegaciones a dicho proyecto; por esta razón, el 2 de abril de 2019 su grupo solicitó una copia de ese escrito de alegaciones y al no haber recibido ninguna información la pasada semana reiteró la petición al nuevo Presidente de la comisión. En consecuencia, ruega que se le haga entrega de la documentación solicitada y pregunta si el Ayuntamiento de Eibar ha presentado dichas alegaciones y cuáles son los pasos que se han dado para modificar el trazado del bidegorri entre Maltzaga y Azitain.

**Alkate-udalburu jaunak** dio formalki ezin duela bermatu alegazio-idatzia aurkeztu denik, baina ziurtatu dezake gutxienez hiru bilera izan dituela aurreko Mugikortasuneko Foru diputatu andrearekin eta diputatu berriarekin eta baita arloko zuzendariarekin ere; eta denetan adierazi duela ez

El **Sr. Alcalde-Presidente** afirma que formalmente no puede garantizar que se haya presentado el escrito de alegaciones, pero lo que sí puede garantizar es que ha mantenido no menos de tres reuniones con la anterior y la nueva Diputada Foral de Movilidad y el Director del área, en las que ha insistido en que no

datorrela bat biribilguneari emandako soluzioarekin eta, hortaz, beharrezkoa dela beste soluzio batzuk bilatzea. Halaber, jakinarazi die enpresa batek erakutsitako kezka, besteak beste, kaltetuta sentitzen delako trazatua beren zamalanen eremutik eta aparkalekuen gunetik igarotzen delako. Azkenik, berretsi du bere eskariari emandako erantzuna, beste behin ere, negatiboa izan dela, baina idatziz jartzeko eskatuko diela.

comparte la solución dada a la rotonda y que, por tanto, es necesario buscar otras soluciones. También ha dado traslado de la preocupación mostrada por una empresa que se siente perjudicada por este trazado en la carga y descarga y en la zona de aparcamientos, entre otras cuestiones. Por último, confirma que la respuesta a su petición ha sido negativa, como en ocasiones anteriores, por lo que solicitará que se transmita por escrito.

**Mendicute Rodríguez jaunak** animatu egin ditu ildo horretatik lanean jarraitzeko eta adierazi du jakinarazi zenean alegazioak jarri behar zirela bere taldea lasai sentitu zela, partekatu egiten dutelako alkate-udalburu jaunak planteatutako trazatuaren proposamena. Dena den, zehaztu du bat baino gehiago direla ukitzen diren enpresak eta baita etxebizitza bat ere.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** anima a continuar trabajando en esta línea y manifiesta que cuando se comunicó que se iban a presentar alegaciones su grupo se sintió tranquilo ya que comparten la propuesta de trazado planteada por el Sr. Alcalde-Presidente. De todas formas, puntualiza que son varias las empresas que se encuentran afectadas, así como una vivienda.

**Alkate-udalburu jaunak** erantzun du, berak dakiela, ukitutako enpresak bi bakarrik direla eta haietako batek dagoeneko beste

El **Sr. Alcalde-Presidente** responde que únicamente le consta que son dos las empresas afectadas y una de ellas ya ha trasladado su actividad.

leku batera eraman duela bere jarduera.

- **Ibáñez Anuncibay andreak** galdetu dio Gobernua Zabalikeko zinegotzi ordezkari andreari ea dagoeneko aurkeztu diren 2019ko uztailaren 1eko Udal bilkuran iragarri zituen alegazioak, gardentasun-arloko dirulaguntza bat galtzeari buruzkoak. Orobat, adierazi du orain arte ez duela eman inolako azalpenik gai honi buruz, orduko bilkuran hitz eman zuen bezala.

**Telleria Echeverria andreak** aitortu du egia dela alegazioak jarriko zituela hitz eman zuela, baina eskumeneko Foru sailarekin harremanetan jarri ondoren, erabaki zuela ez zutela aurrera egingo. Barkamena eskatzen du, halaber, horren berri ez emateagatik, baina alkate-udalburu jaunak kopuruak itzultzeko agindua emanda uste izan zuen gaiak ez zuela ibilbide gehiagorik. Nolanahi ere, berriz ere dio inguruabar horrek ez dituela arriskuan jarri diruz lagundutako egitasmoak, zeren haiek gauzatzea ez zegoen dirulaguntza horien mende, eta atzera ere esan du ez dagoela ados itzulketaren oinarrian dauden arrazoiekin. Horren harira, zehaztu du ez dela martxan jarri

- La **Sra. Ibáñez Anuncibay** pregunta a la Sra. Concejala Delegada de Gobierno Abierto si ya se han presentado las alegaciones que anunció en el Pleno del 1 de julio de 2019 relativas a la pérdida de una subvención en materia de transparencia. Igualmente, manifiesta que hasta la fecha no ha facilitado explicación alguna sobre este asunto, tal y como se comprometió en aquella misma sesión plenaria.

La **Sra. Telleria Echeverria** reconoce que es cierto que se comprometió a presentar esas alegaciones, pero que, tras mantener una serie de contactos con el Departamento Foral competente, llegó a la conclusión de que no iban a prosperar. También pide disculpas por no haber dado cuenta de todo ello, pero considera que al haber dado el Sr. Alcalde-Presidente la orden de reintegro de las cantidades correspondientes entendió que el asunto no tenía más recorrido. No obstante, reitera que esta circunstancia no ha puesto en riesgo los proyectos subvencionados, puesto que su ejecución no dependía de estas ayudas económicas e insiste en su desacuerdo con los

aurrekontu parte-hartzaileen egitasmoa eta, ondorioz, udal taldeei eskatu die talde eragilea lehenbailehen martxan jartzeko, nahiz eta orain arte bakarrik Eibarko EAJ-PNV udal taldearen erantzuna lortu.

motivos en los que se fundamenta el reintegro. En este sentido, precisa que no se ha puesto en marcha el proyecto de presupuestos participativos y, en consecuencia, ha instado a los grupos municipales a poner en marcha cuanto antes el grupo motor, aunque, hasta el momento, únicamente ha obtenido respuesta del grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV.

**Ibáñez Anuncibay andreak** jakin nahi du zein den itzuli beharreko kopuru zehatza.

La **Sra. Ibáñez Anuncibay** desea saber cuál es la cantidad exacta que se debe reintegrar.

**Telleria Echeverria andreak** erantzun du gutxi gorabehera 4.000 euro izango direla.

La **Sra. Telleria Echeverria** responde que se trataría de 4.000 euros aproximadamente.

- **Lamarain Cobo andreak** bere taldearen kezka adierazi du, eta, seguru asko, baita gainerako udal taldeena ere, Udaltzaingoaren plantillaren egonkortasun falta dela-eta. Bere iritziz arazo hori gertatzen ari da langile horien hauta-probak Eibarko Udaletik kanpo kudeatzen direnez geroztik. Horren harira, esan du frogatuta gelditu dela egungo ereduak ez duela funtzionatzen eta horregatik, galdetu du ea gobernu-taldea baloratzen ari den arazo horri

- La **Sra. Lamarain Cobo** expresa la preocupación de su grupo y, a buen seguro, de los restantes grupos municipales sobre la inestabilidad de la plantilla de la Policía Municipal. En su opinión, esta circunstancia se viene produciendo desde que los procesos selectivos de este personal se gestionan desde fuera del Ayuntamiento de Eibar. A este respecto, indica que ha quedado demostrado que el modelo actual no funciona y, por esta

eman beharreko soluzioa, berriz ere administrazio honek Eibarko Udaltzaingoarentzat lan egin nahi duten pertsonak hautatzeko ahalmena izan dezan. Halaber, adierazi du langileen artean ezinegona gero eta handiagoa dela eta, hortaz, beharrezkoa dela neurriak hartzea arazoa larriagoa izan baino lehen.

razón, pregunta si el equipo de gobierno está valorando la solución a este problema con el fin de recuperar para esta administración la capacidad de seleccionar a las personas que quieran trabajar en la Policía Municipal de Eibar. Asimismo, asegura que existe un cierto malestar entre estos trabajadores y, por tanto, resulta necesario adoptar medidas antes de que el problema se agrave.

**Alkate-Udalburu jaunak** erantzun du ez dagoela bermatuta Udal honek zuzendutako prozesu batean hautatutako pertsonak Eibarkoak izatea.

El **Sr. Alcalde-Presidente** responde que no está garantizado que las personas seleccionadas en un proceso dirigido por este Ayuntamiento sean de Eibar.

**Lamarain Cobo andreak** zehaztu du ez duela esan hautatutako pertsonak "Eibarkoak izatea", baizik eta "Eibarren bizi nahi izatea".

La **Sra. Lamarain Cobo** puntualiza que no ha afirmado que las personas seleccionadas “sean de Eibar” sino que “quieran trabajar en Eibar”.

**Alkate-Udalburu jaunak** azaldu du bihar bertan bost pertsona sartuko direla Udaltzaingoan, Polizia eta Larrialdietako Akademian hauta-ikastaroa gainditu ondoren eta, laster, beste zortzi pertsona hautatuko direla, erakunde horrekin hitzartu den legez. Horren haritik, uste du lan egiteko modu hori dela denetan kalte gutxien eragiten duena, nahiz eta beste udal batzuk beren baliabide propioekin ari diren prozedura horiek garatzen. Bere iritziz, arazo nagusienak dira

El **Sr. Alcalde-Presidente** explica que mañana mismo cinco personas se incorporarán a la Policía Municipal después de haber superado el correspondiente curso selectivo en la Academia Vasca de Policía y Emergencias y, próximamente, se seleccionarán otras ocho personas, tal y como se ha convenido con ese organismo. A este respecto, considera que esta forma de proceder es la menos mala, a pesar de que otros municipios

hautaketa-epaimahaiaren parte izan beharko luketen Polizia eta Larrialdietako Akademiako ordezkarien disponibilitatea, eta, halako prozesuak kudeatzeko, Eibarko Udalak duen gaitasuna. Edonola ere, esan du ez lukeela inolako arazorik, behin uda igarota, Langileria saileko arduradunarekin batera, esperientzia horren emaitza aztertzeko eta, hala, argitu ahal izatea, etorkizunari begira, era honetako prozesuetan inskribatzen direnek jakin dezatela Eibarren lan egingo dutela. Dena den, ohartarazi du Udalak berak egiten zituenean hautaketa-prozesuak, orduan ere hainbat pertsonak uko egiten ziotela lanari beste plaza bat lortzen baitzuten Ertzaintzan edo bere etxetik gertuago zeuden herrietan. Azkenik, uste du Udaltzaingoaren plantillaren egonkortasun falta aztertzeko orduan kontuan hartu beharko litzatekeela baita bitarteko funtzionarioen autoritate-izaerari buruzko sententzia eta duela gutxi langile ugari jubilatu direla.

están desarrollando estos procedimientos por sus propios medios. En su opinión, los principales problemas son la disponibilidad de los representantes de la Academia Vasca de Policía y Emergencias que deberían formar parte del tribunal selectivo, así como la capacidad del Ayuntamiento de Eibar para gestionar este tipo de procesos. De todas formas, afirma que no tendría ningún inconveniente en analizar, junto con la responsable del Departamento de Personal, una vez pasado el verano, el resultado de esta experiencia y poder aclarar así de cara al futuro que quienes se inscriban en este tipo de procesos sepan que van a trabajar en Eibar. No obstante, advierte que cuando era el propio Ayuntamiento el que realizaba los procesos selectivos también se producían renuncias de personas que habían conseguido plaza en la Ertzaintza o en municipios más cercanos a su domicilio. Por último, considera que también habría que tener en cuenta a la hora de analizar la inestabilidad de la plantilla de la Policía Municipal la sentencia sobre el carácter de autoridad de los funcionarios interinos y la reciente jubilación de un significativo número de este personal.

- **Errasti Bernedo jaunak** adierazi du EH Bildu udal taldeari informazioa eman zitzaiola Bozeramaleen Batzarrean udal eraikinen garbiketa-zerbitzua birmunizipalizatzeko prozesuaren gainean, eta horri buruzko txostenen zain daudela. Nolanahi ere, kontratu horren enpresa adjudikazioduneko hainbat langile Batzar Aretoan daudenez, eskertuko lukete informazio hori aurrez aurre ematea.

- El **Sr. Errasti Bernedo** indica que el grupo municipal de EH Bildu ya ha sido informado en la Junta de Portavoces sobre el proceso de remunicipalización del servicio de limpieza de edificios municipales y se encuentran a la espera de recibir los informes al respecto. De todas formas, ya que varias trabajadoras de la empresa adjudicataria del contrato de servicios se encuentran presentes en el salón de Plenos, agradecerían que se les facilitase personalmente esa información.

**Alkate-Udalburu jaunak** gogorarazi du udaleko hainbat teknikariri eskatu ziela txosten bat egitea gai honen inguruan eta oraingoz horietako bi jaso dituela, eta berehala igorriko zaizkiela oposizioaren udal taldeei. Era berean, Kontratazio sailetik jakinarazi zaio beharrezkoa dela tokiko administrazioaren arloko jurista entzutetsu bat kontratatzea, prozesuan lagundu dezan; izan ere, egindako txosten teknikoek, kontraesankorrak ez badira ere, ñabardurak azaltzen dituzte, bere garaian txosten-egileek azalduko dituztenak. Horrekin guztiarekin, eta segurtasun juridikoaren printzipio oinarri, kontratuaren lizitazio-prozesuari ekin zaio, urtarrilaren 1ean zerbitzua ematea ziurtatzeko; baina, udalekotzearen arrakastarekiko bere konpromisoa

El **Sr. Alcalde-Presidente** recuerda que encargó a diferentes técnicos municipales la emisión de informe sobre este asunto y hasta la fecha ha recibido dos de ellos que serán remitidos inmediatamente a los grupos municipales de la oposición. Del mismo modo, desde el Departamento de Contratación se le ha transmitido la necesidad de contratar a un jurista de reconocido prestigio en el ámbito de la administración local para que asesore sobre este proceso, ya que los informes técnicos emitidos, pese a no ser contradictorios, presentan matices que serán explicados en su momento por los autores de aquellos. Con todo ello, y en aras del principio de seguridad jurídica, se ha iniciado el proceso de licitación

berretsi du, eta, hala gertatuko balitz, eten egingo litzateke martxan dagoen lizitazioa.

del contrato, con el fin de asegurar la prestación del servicio el próximo 1 de enero, al tiempo que reafirma su compromiso con el éxito de la remunicipalización, en cuyo caso se anularía la licitación en marcha.

Eta, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoela, eta arratsaldeko zortziak eta erdiak izanik, Alkate-Udalburu jaunak amaiera eman dio Osoko Bilkurari, nik, Idazkari Orokorra modura, horren fede emanez.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las veinte horas treinta minutos, el Sr. Alcalde-Presidente levanta la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario General, doy fe.

O.I. / Vº Bº

ALKATE UDALBURUA/

EL ALCALDE-PRESIDENTE,

Miguel de los Toyos Nazabal

IDAZKARIA/ EL SECRETARIO

Juan Agustín Villafranca Bellido